



TXOTX!
Hemen da
espero
zenuen
eguna



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

+ osasun gida

Dentistak



arat
Horts Klinika

"Horts osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Horts-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



horts-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izeateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
Tf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekaitz Olaizola

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta intzieren erantzukizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

eskutitzak

Naluaen bilera irekira joateko gonbidapena

Kaixo! Gustatuko litzaizuke **Nalua** talde feminista kidea izatea? Eibarren feminismoa lantzeko gogoia edo ideiak dituzu? Ba proposamen bat daukagu zuretzat: ziur gaude noizbait pasatu zaizula burutik guregana etortzea, baina badakigu ez dela erraza lehenengo bilerara horretara joatea, talde batean berria izatea... Ziurrenik asko izan dira orain arte ez etortzeko izan dituzuen arrazoiak, eta zue-tako batzuk gurekin ere elkarbanatu dituzue kezka horiek inoiz. Esandakoak kontutan hartu eta gure jardunari buelta bat eman diogu.

Beraz, orain bai, animatu!!! Taldea ezagutzeko bilera bat baino gehiago egingo ditugu, kide berriak ere eroso eta gustora sentitu daitezten. Danok daukagu gure lekua Naluan eta ikasturte honetarako proiektuak zuekin batera pentsatu nahi ditugu!

Etorri konpromiso gabe lehenengo bilerara (urriaren 11n, 18:00etan Portalean) eta zuek erabaki etortzen jarraitu nahi duzuen ala besteren batean izango den!

Nalua Eibarko talde feminista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOKORDO.- Kaka-zatia. Gaztelera *'mojón'*. *"Ha ostia, mokordoz beteta egoten zan beti"*. Txikia, ziztrina, kaxkarra. *"Zaldi mokordo bat altzau ezinda"*.

astean esanak

"Hurrengo bi Euskaraldiek asko marka dezakete euskalgintzaren hurrengo fasearen norabidea eta abiadura. Gizarteak ikusten badu pauso serioak direla, sinetsita eman direla, urrats kualitatiboa izango da: aukera daukagu! Badugu arriskua: euskararen aldeko jarrera simboliko asko egon da; jende asko dago euskararen alde, baina erabileran urrats zehatzik egiten ez duena. Horretara ohitu da jende asko. Hurrengo Euskaraldiek erakutsiko dute zenbat lortzen dugun herritar eta entitateak aktibatzea

(KIKE AMONARRIZ, TOPAGUNEKO PRESIDENTEA)

"Kanpotik etorritako batek hemen jaiotakoak baino bost aldiz aukera gehigo ditu pobrezian bizitzeko. Baina datu horrek ez du etorkinak diru publikoarekin gozo bizi direla dioen gezur zabaldua ezabatzeko ahalmenik, sarritan gezurra egia baino sinesgarriagoa delako, batez ere norbaitek esaten badizu bere inguruko batek ezagutzen duela diru publikoa alferrik galtzen duen norbait. Beste gezur bat: pobrezian bizi denak ez duela egin hortik irteteko nahiko ahalegin. Horrek esplikatzeko du pobreaken lotsa, min egiten diona salatu beharrean duen egoera gaiztoa ezkutuzeraino. Gizarteak ere horrela nahi ditu pobreak: ezkutuan"

(ARANTZA URRETAZIKAZAIA, IDAZLEA)

"Euskaldunon izatearen jatorria amaren taldeko partaidetza da. Hori garbi ikusten da hizkuntzan bertan, euskararen izaba, osaba, amaginarreba, aitaginarreba, loba; -ba bukaera horiek amaren taldeko partaidetza azaltzen dute. Hizkuntzan bertan dagoeneko ikusten da matrilinealtasuna eta senide izenen egitura ez dago inolako zalantzarik. Egungo senide arteko harremanetan ere ikusten dira horren arrastoak. Nahiz eta gizarte patriarkal batean bizi, alabak gurasoak zaintzen ditu eta, trukean, etxea herentzian jasotzen du. Horren azpian dagoen ideia garbia da: alaba etxearena da. Maiorazkoa Elizak ezarri zuen"

(M^{re} CARMEN BASTERRETxea, ANTROPOLOGOA)

Agiñagako San Miguel jaixak jarraipena izango dabe asteburu honetan be

Aurreko domekan izan zan San Miguel eguna eta, urtero lez, bere omenezko jaixa egin eben Agiñaga auzuan. Goizian mezia ospatu eben ermittan, Usartza txistulari taldekuak lagunduta eta, horrekin batera, luntxa, umiendako jolasak, paela-jana eta erromerixia egin zittuen (argazkixak etakitto.eus webgunian, MEDiateka atalian ikusi leikez). Eta aurreko asteburuan hasittako jaixak asteburu honetan segiduko dau: bixar briska txapelketia (17:00etan), umiendako jolasak eta txokolatejana (18:00etan), lxua jatetxian afarixa eta 23:00etan hasiko dan erromerixia, Puro Relajo taldiarekin egingo dira. Eta hurrengo egunian, barriz, mezia eta hamarretakua (11:00etan), Gorixoren aberiak (12:30xetan) eta oparixen zozketia (14:00etan).



Bizikleta Eguna ospatuko da domeka goizian

Eibarko Txirrindularien Elkar-teak antolatuta, domekan Bizikleta Eguna egingo da. Egunerako prestau dabən programia 09:30xetan hasiko da, Untzagan zikoturistak eta bikerrak alkartu eta, udaletxe parian talde argazkixa egin eta gero, talde bakoetak bere ibilbidia hastiarekin batera. Eguardixan talde bixekin Apalategin (Agme parian) alkartuko dira antolatzailliak, "danak alkarrekin anbulatorixoraiño igotzeko. Han txixixekin bat

egingo dogu eta, Toribio Etxebarria kaletik, Untzagaraiño juango gara".

Horrekin batera, 10:00etatik aurrera 8 urtera artekuendako Untzagan egongo dan ginkanarako izen-erotia zabalduko dabe (udaletxeko arkupietan). 8-12 urte bittartekuak, barriz, 11:00etan urtengo dabe Untzagatik, Ardantzatik Amañara bittarteko bidegorritik juateko. Herri barruan be, erdialdeko kalietan, umiak bizikletan ibiltzeko zirkuituak prestauko di-



ttue. Eta aittatutako guztiekin batera, 10:00etatik aurrera nahi dabən guztiak eukiko dau Galibier mendatera igotzia zelakua dan probatzeko aukeria, asmo horrekin ipiñiko

dabən arrabolera edo rodillo-ra igo eta horren simulaziñua eginda. Eta, domeka goizera-ko plana biribiltzeko, oparixen zozketia eta bestelako jardue-ra batzuk egingo dira.

Portugalera juan dira Kaleetan Kantuz-ekuak

Kaleetan Kantuz abesbatzak astebete pasau dau Portugalen eta, handik bueltan kontau dabenez, ederto eta pozarren ibilli dira danak alkarrekin. Danera 32 lagun animau dira biajia egitten eta, bestiak beste, Lisboa, Oporto eta inguruak ikusteko aukeria euki dabe.



Mendixan dagan zaborra garbitzen jardun dabe gaztiak

Aurreko barixakuan, klima aldaketaren kontrako greba zekela aprobetxauta, 15-16 urte arteko hamaika lagun alkartu ziran eta zaborra batzen ibilli ziran Milaflores eta Iturburu arteko bidian. Esaten dabenez, "nahiko harrittuta geratu giñan mendixa zelako zikiña zeguan ikusitta. Hasieran pentsatzen gendua baño zabor gehixago topau genduan, holako garbiketak sarrixago egin bihar dirala pentsau genduan eta, asmo horrekin, WhatsApp taldia sortu genduan, holan jende gehixago alkartu eta gehixago garbitzeko. Ixa 200 lagun batu dira taldera eta, horregaittik, oso pozik gaok sare sozialetan jaso dogun erantzunarekin".





Agoitzera juaan dira Ipuruako jubilaauk

Ipuruako jubilaau etxeuak antolatuta, argazkixan ikusten dozuen taldiak Agoitzera (Nafarroa) ekursiñua egin eban aurreko asteo eguenian. Esan deskuenez, egun ederra pasau eban: "Itoitzan urtegiña bisitatzera juaan giñan, Beti Jai jatetxian bazkaldu genduan, gero San Miguelera juaan giñan eta Eibar foball taldiaren partiduaren bigarren zatixa, zelan irabazten eban ikusteko sasoi egin genduan bueltia".

Alderdixaren kontra herrixan agertu diran pintadak salatu dittue jeltzaliak

Eibarko EAJ-PNVk alderdixaren eta Eibarko Udalian euren bozeramaillia dan Josu Mendicuteren kontra barixaku gabian herriko hainbat tokitan margotuta agertu ziran esaldixen harira salaketia egin dau. Esandakuaren arabera, "ez da lehen aldixa, azken hilliotan horrelakuak Sansaburun, Txaltxa Zelaixan eta Legarren errepikatu dira eta. Horrelako ekintzekin Eibarko alkarbizitza demokratikua asaldatu nahi dabe". Mendicutek berak Twitterren idatzi eban, "ni kritikatzia nahi badabe nahi beste kritikatzeko, baiña horrelako zikinkerixak euren etxian, eta ez danonak diran tokixetan egitteko".



autuan

1937-XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Azaruaren 15ian alkartuko dira 1937xan jaixotakuak, urtero lez alkarrekin bazkaltzeko. Aurten hamairugarrenez egingo daben bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da eta juaan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittue, Kutxabaneko ES13 2095 5035009115389087 kontu korrante zenbakixan, izen-abizenak zihezuta.



IPURUAKO KOMENTUKO BIDEUAK ONLINE

Ego Ibarra batzordiak Ipuruako komentua eta eliza barrutik ezagutzeko testigantzak batzen dittuen bideo bi ipiñi dittu interneten eskuragarri, egoibarra.eus webgunian. Batian komentua barruko instalaziñuak eta Juan Luis Cristobal hango administradoria izandakuak eraikiñari buruz emondako azalpenak batzen dittu eta bestian Begoña Atutxa abadesiari egindako alkarriketia batu dabe.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



1934ko oktubrian atxilotutako 238 eibartarren zerrendia eskuragarri ipiñi dabe

Greba Iraultzaile Orokorra edo 1934ko Urriko Iraultza izenarekin ezagutzen diren gertakariak pasau zirala 85 urte betetzen dira. Hórrek gogoratzeko, Udal Artxibuak ezagutzera emon ditu Iruñeko Kartzela Probintzialian 1934 urteko urrian atxilotutako 238 eibartarren izenak. Urte horretako urriaren 5ian Eibarren izandako gertaerak zirala-eta eruan zittuen preso aitutatutako eibartarrak eta, Artxibuak ezagutzera emon daberen dokumentuan argi eta garbi azaltzen dira 1934ko urriaren 31n Iruñeko Kartzela Probintzialian, Auzitegi Militar Berezi baten esku eguazen 238 pertsonen izen-abizenak. Tartian lau andrazko dagoz.

Horrekin batera, agirixan ikusi leike euretako bakotxa zein egunetan atxilotu eben eta zein egunetan etara zittuen libre. Urriaxan bertan, atxilotutako 59 askatu zittuen. Zerrenda osua eta jatorrizko agirixa interneten, udal artxibuaren atalian, irakorri leikez.

Udal Artxibotik aditzera emon dabenez, "1933ko urriko hauteskunde orokorren ondoren, ezkerreko alderdiak deitutako greba orokorraren harira piztu ziran liskarrak han eta hamen. Eibarren, gertaerak urriaren 5ian hasi ziran, goizeko lau eta erdixetatik aurrera, tren geltokixaren inguruan militante sozialisten eta guardia zibillen artian tiroketa bat hasi zanian.



Atxilotutakuak Iruñeko Kartzela Probintzialian.

Horren atzetik, beste gertaera batzuk etorri ziran: Guardia Zibillen Kuartelari eraso zetsen, Armerixa Eskolia okupau eben, Espaiñiako Arma eta Muniziño Alkartiaren tailarra erasotu eben, Carlos Larrañaga Eibarko Circulo Tradicionalistaren lehendakarixa hil eben, Arma probalekua be erasotu eben, eta guardia zibillak eta asalto guardiak osa-

tutako tren konboi bat tirokatu eben. Halanda be, egun horretan bertan, arratsaldeko ordu bata inguruan matxinatuen artian etsipena nabaritzen hasi zan eta, matxinadarekin amaitzeko Gasteiztik Eibarrera bi infanteria konpainia joiazela jakin zanian, ordubixetarako errendiziñuaren bandera zurixa jarri eben udal-txeko balkoian".



Automobil klasikuk erakutsi zittuen Untzagan

Ibilgailu klasikuen Eibarko II. Konzentraziñua egin zan domeka goizian Untzagan, San Kristobalگو jai batzordiak antolatuta. Konzentraziñuan parte hartu eben automobilak gitxienez 30 urte zittuen eta eguarditik aurrera Untzaga plazan egon ziran, ikusteko moduan. Erakusketarekin batera, ibilgailu klasikueri buruzko stand tematikuak eta bigarren esku-ko azokia be egin zittuen.

JUAN CARLOS ZORROZUA OLARRA

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

MEKETREFEX TXARANGAKO LAGUN ETA KIDEAK



Nagusixen eskubidien aldeko manifestaziñua egin zan martitzenian

Urriaren 1a Pertsona Nagusixen Nazioarteko Eguna zala eta, pentsiodunen mugimenduak deittuta eskualde maillako manifestaziñua egin zan martitzen eguardixan, Untzagatik abiatuta. Erakundieri bermatzeko eskatu detsazen eskubidien artian, bestiak beste, honek dagoz: euren premiñetara egokitutako etxebizitza; berokuntza, argixa, gasa... bermatuta egotia, bako txak dittuan bittarteko ekonomikuen arabera; medikamentuak duan, osasun premiñen arabera; era guztietako probrezia ezabatza adiñekuen artian; zaharrendako zentruetan hobekuntzak egittia eta bertako bihargiñen ratioak hobetzia; eta mendekotasunari lotutako beharrerri erantzuteko bittarteko eta laguntasunak. Eskaera horrek, beste batzurekin batera, Gipuzkoako Persona Helduen Elkarteen Plataformak gaurko egunerako egin daben eta manifestaziñua hasi aurretik Untzagan irakorri eben komunikatuan jaso dittue.



“Bat-etorri” plataformia eratu dabe Gipuzkoako pentsiodun batzuk

Gipuzkoako hamar bat pentsiodunen mugimenduetako hainbat kidek “Bat-Etorri/Consenso” plataformia eratu dabe. Oin



dala egun batzuk batzuk egin eben presentaziñua Donostian eta, esandakuaren arabera, talde barrixaren helburua erretiratuen alarte ezberdiñak “kohesionatzia” izango da. Bizitza duiña bermatuko daben pensiño publikuen aldeko oiñarrizko aldarrikapena bateratzian oiñarrituko da plataformia. Aurkezpenian esandakuari jarraituta, Hego Euskal Herriko pentsiodunen alkartien arteko zubixak eraiki eta aldarrikapenen posiziñua apartidista izatia nahi dabe. Bestela esanda, eritzi guztiak errespetatuak izatia. Plataformaren oiñarrixak zihetzeko asmuarekin, “Pensio publikoak, bizitza duinerako bermea” izenburuko txostena osatu dabe, bertan oiñarrizko bost aldarrikapen jasota. Txosten horrek diñuana mailla pertsonalian onartu dabenen artian Eibarko Plataformako Arrate Berasaluze dago.

35 urteko eibartarrak primeran ospatu eben euren jaixa

1984. urtian jaixotakuak giro onian ibilli ziren jaixa aurreko zapatuan. Danera 130 lagun inguru alartu ziran eta, Untzagan talde-argazkixa etara, Ongi Etorri tabernan zeozer hartu eta lpur sagardotegixan bazkaldu eta gero, Matraka elektrotxaranguak girotuta kalejiran ibilli ziran arratsaldian.



JULIAN MORO GIL

2019ko irailaren 25ean hil zen, 85 urte zituela

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA**

Julianen agurrean gure nahigabeen
lagundu diguzuen guztioi eta

hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Aurten ere, Oporrak Bakean izeneko programari esker, Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetan bizi diren 9-12 urte bitarteko haur askok izan dute uda handik kanpora igarotzeko aukera: Espainia osoan zehar bizi diren familiekin 2.000 bat haur egon dira udako bi hilabete pasatzen eta horietako 147 Euskal Herrian egon dira. Eibarren bi haur egon dira aurten: Buyema eta Lahsan, 9 urteko bikiak. Eibar-Sahara Elkarteko kidea den Edurne Uzkudunen etxean egon dira biak.

Oporrak Eibarren Bakean

Edurnek kontatu digunez, "Lahsan aurretik egonda zegoen, orduan ere gure etxean. Ume honek osasun arazoak dauzka, oso migraina gogorrek izaten ditu eta, aurrekoan hemen egon zenean neurologoak begiratu eta tratamendua eman zion. Baina bere anaia Buyemarentzat lehen aldia izan da, dena izan da berria berarentzat eta, beraz, hemengora ohitzea gehiago kostatu zitzaion. Guretzat ere ezberdina izan da, gainera anaiak izan arren izaera ezberdina daukate, baina hala ere oso ondo joan da dena eta, betiko moduan, esperientzia polita izan da".

Berez, Eibarren bazegoen beste haur bat etxean hartzeko

prest zegoen beste familia bat: "laz uda eurekin pasatu zuen neska berriz ekartzeko asmoa zuten, eta egin beharreko tramite guztiak ere eginda zituzten, baina azken momentuan, ia hegazkina hartzeko orduan, arazo bat gertatu zen eta azkenean ezin izan zen etorri".

Aurten, gainera, beste arazo burokratiko batzuk ere egon dira: "Haurrak hona etorri baino lehen nik astebete eman nuen han, kanpamenduetan laguntzen. Ekainaren 17an joan nintzen eta 24rako bi haurrekin batera bueltatzea espero nuen, baina bakarrarekin etorri behar izan nintzen. Izan ere, El-Aiunen sortu zen arazo burokratiko baten eraginez, ezin izan ziren haur guztiak ba-



tera etorri eta batzuk geroago, uztailearen 12an ailegatu ziren, tartean Buyema".

Oztopoak oztopo, hortik aurrera anaia biak batera, Edurneren familiarekin batera planak egiteko moduan egon ziren: Atxabalpen Eibar foball taldearen entrenamendua ikusten, Kalamuan, hondartzan, igerilekuan... baita Oporrak Bakean egitasmoaren inguruan Euskal Herriko toki ezberdinetan Saharatik etorritako umeentzat antolatzen dituzten jaietan ere. Besteak beste, Larrabetzun, Gasteizen (Gamaran) eta Usurbilen egon ziren anaia biak.

Eibar-Saharako kidearentzat oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da eta, horregatik, datorren udan haurren bat etxean hartzea animatu nahi du jendea: "Harrera familiak erakartzeko kanpaina urtarilean izaten da eta jendea probatzera animatuko nuke. Familia eredu guztiak onartzen

dira eta, gainera, bakoitzak dituen opor egunen arabera moldatzeko aukera ere bada, oporren zati bat familiako batekin eta beste zatia besteren batekin pasatu dezake umeak. Haurren osasunarentzat oso garrantzitsua da, hango bizitza baldintzak oso gogorrek dira eta benetan mesede egiten die urtean bi hilabete handik kanpora ematea. Hemen dauden bitartean pediatra, dentista eta bestelakoekin errebisioak egiten dituzte eta horiek guztiak doan izaten dira. Eta elikadura freskoak on egiten die, horren onurak kanpamenduetan pasatu behar dituzten beste hamar hilabeteetan asko nabaritzen dituzte". Osasun hobearrekin ez ezik, haurrak pozarren bueltatzen dira etxera: "Azken batean euren bizimodua eta familiak han daude eta, horregatik, hemen oso gustora egon arren, pozik hartzen dute bueltarako hegazkina".



Eibarko Zorionak ludotekako Alberto Sanchez arduraduna eta Ainhoa Muniategi psikopedagogo Donostiako Zinemaldiko "Puxika Gorria" haurtzaindegian egon dira lanean Zinemaldiak iraun duen bitartean. Zerbitzu hau aurten antolatu da lehen aldiz Zinemaldian akreditatutako pertsonentzako. Haurtzaindegia 6 hilabete eta 6 urte bitarteko umeentzat izan da eta San Telmo Museoeko 100 metro inguruko espazioan egon da kokatuta. Familia eta lanaren arteko kontziliazioa sustatzeko eta Zinemaldira lanera etortzen diren familiak euren seme-alabekin etorri ahal izateko ekimen arrakastatsua eta txalotua izan da.



**AINHOA MUNIATEGI
eta ALBERTO SANCHEZ
(Zorionak ludoteka):**

“Zinemaldian gure konfort-zonatik irtetzeko aukera izan dugu”

- Nola sortu zen Zinemaldian haurtzaindegia antolatzeko ideia?

Idea Parenting at Film Festivals elkartearena izan da, eta Zinemaldiaren, San Telmo Museoaren eta CIMAREN (Zinema eta ikusentzunezkoen arloko emakumeen elkar-tea) laguntza izan du. Cannes-en estilo horretako ekimen bat egin zuten, Le Ballon Rouge, eta Donostian ere horrelako zerbait egin zitekeela pentsatu zuten. Zorionak Ludoteka izan da Puxika Gorriko ekintzak aurrera eramateko ardura izan duena.

- Non egon da haurtzaindegia eta zein izan da funtzionamendua?

San Telmoko gela didaktikoa erabili dugu ekintzak egiteko. 6 hilabetetik 6 urtera arteko haurrentzako zerbitzua izan da. 100 metrotan adinaren arabera txoko desberdinak antolatu ditugu, eta anexo batean jolas-toki bat izan dugu jolasteko eta gauza desberdinak egiteko. Zinemaldiak iraun duen bitartean egon da zabalik, goizeko 10:00etatik 20:00ak arte. Umeak gehienez 6 ordu egon zitezkeen egunean. Egitarau



bat zegoen, harrera eta txoko ekintzak, garbiketa eta elikadura ekintzak, siesta..., baina irten eta berriro sartzeko aukera zuten. Familien betebeharren arabera zerbitzua eskaini dugu azken finean. Aquariumera irteera bat egin genuen haur eta familiek.

- Nori egin dio mesede zerbitzuak?

Jaialdian akreditatutako jendearentzako izan da, hau da, antolaketan lan egiten dutenentzako eta Jaialdian parte hartzera etorritako sektoreko eta agentzietako profesionalentzako (zuzendariak, produktoreak, gidoigileak, aktoreak, teknikariak, kazetariak...) Lanbidea eta familia kontziliatzeko pausu bat gehiago izan da, eta hurrengo urteetan errepikatzea espero dugu. Gurasoei ez zik, haurrei ere laguntzen die ekimenak. Haurrak, gurasoak lanean dauden bitartean, gela itxi batean egon beharrean, kalitatezko jolas-gune batean daude, non errespetua,

komunikazioa, emozioen gestioa eta beste hainbat arlo lantzen diren.

- Profesionalki nola baloratzen duzue esperientzia?

Desberdina izan da, eta momentura egokitzeko ahalmen handia eman digu. Gure konfort-zonatik irtetzeko aukera izan dugu: gertuko ludotekatik irten eta egoera berri eta anitzei egin diegu aurre. Ezin dugu ahaztu mundu osoko jendea dela Zinemaldian mugitzen dena, hizkuntza, kultura eta ohitura desberdinekin. Azkenean ikasten duzu berdin dela haurrek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Haurrak beti haurrak dira, eta jolasa hizkuntza unibertsala da. Oso polita izan da leku, hizkuntza eta adin desberdinetako haurrak elkarrekin ikustea, inolako mugarik gabe. Ohiko ludotekaz haratago, horrelako jaialdi edo ekitaldi berezietan guretzako esparru zabala dagoela ikusi dugu. Familia eta enpresa asko proiektua ikustera eta zoriontzera etorri dira.

- Zenbat jende egon zarete lanean?

Gutaz gain, Vanessa Gerardi ingelesezko irakaslea eta Jon Monje haur hezkuntzako irakaslea izan dira. Beraz, bi neska eta bi mutil egon gara. Batzuei atentzioa ematen zien bi mutil ludotekan ikusteak. Baina gauzak aldatzen ari direla argi dago. Matrikulen erdia, esate baterako, gizonentzako gestio-natu dute Puxika Gorrian. Haurren zaintzari dagokionez belaualdi gazteen artean gauzak asko aldatzen ari dira, zorionez.





Debabarreneko Euskararen Ginkanan parte hartzeko izen-ematea zabalik DBHko 4. mailako ikasleentzat

Urriaren 22ra arte zabalik egongo da Debabarreneko Euskararen Ginkanan izena emateko epea. DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako lehiaketa da eta euskara eta ekologia eta bien arteko lotura izango ditu ardatz. Ginkararen final handia abenduaren 4an ospatuko da Eibarko Coliseo Antzokian.



Lehiaketa Kutxa Ekoguneak sustatzen du, Euskaltzaleen Topagunarekin elkarlanean eta Deba, Mutriku, Elgoibar, Eibar eta Soraluzeko udalen eta Eibarren AKEBAI plataformaren laguntzarekin.

Euskararen Ginkana euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa da. Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte talde lehiakideek. Aurten Debabarrenara heldu da lehiaketa eta "hizkuntza-ekologia" izango da lehiaketaren gaia.

Debabarreneko ikastetxe guztietako DBHko 4.mailako ikasleei zuzendutako lehiaketa berri honek euskara eta ekologiaren arteko lotura izango ditu ardatz eta hainbat proba egin beharko dituzte taldeek. Parte-hartzea eta izen-ematea taldekakoa izango da, eta parte hartzaileak Debabarrenan bizi edota bertan ikasten dutenak izango dira. DBH 4ko ikasleen 4-8 laguneko taldeak osatu beharko dira horretarako.

1.200 euro saritan

Lehen 4 probak Internet bidez erantzun beharko dituzte urriaren 23tik azaroaren

20ra bitartean, astero proba bat gaindituz. Horietan puntuazio altuena lortzen duten taldeak abenduaren 4an ospatuko den final handira joango dira. Finala Eibarren izango da, Coliseo Antzokian. Bertan, beste 4 proba burutu beharko dituzte aurrez aurre eta orduan erabakiko da nor den Debabarreneko Euskararen Ginkanaren talde irabazlea.

Guztira 1.200€ banatuko dira saritan talde finalisten artean. Talde irabazleak 800€ko saria jasoko du. Bigarren geratzen den taldeak 200€ko saria izango du. Eta hirugarren eta laugarren geratzen diren taldeentzako 100€ko balioa duen saria egongo da.

Izen-ematea zabalik

Urriaren 22ra arte izen-ematea zabalik egongo da DBHko 4.mailako ikasleentzat euskararenginkana.eus webgunean. Izena eman ahal izateko, 4 taldekidez osatutako taldea sortu eta webgunean dagoen galdetegia bete beharko dute, taldearen aurkezpen bideo labur bat bidaltzarekin batera. Informazio gehiago:

euskararenginkana.eus /
euskararenginkana@ekogunea.eus




JUAN CARLOS ZORROZUA OLARRA

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.

GOIKO LAGUNAK





Herriko historia bertatik bertara **EZAGUTZEKO BISITAK** egingo dira

Eibar 1931-1945 Memoria Proiektuari lotuta doaneko bisita gidatuak antolatu ditu Udalak. "Ibilbideak Eibar-ko hirigunean" izeneko ekimenaren bitartez, Eibarko hainbat lekutan jarritako QR-en arabeko ibilbideari jarraitu ahal izango zaio, Jesus Gutierrez historialariak eta Jose Luis Valenciagak gidatuta. Herriko kaleetan zehar doan ibilbideari jarraitzen zaion bitartean, gure herriko gertakari historikoei buruzko azalpen interesgarriak ematen joango dira.

Herri barruan QR dispositiboaren kapturarako kodearekin markatutako zazpi interes-gune daude eta, "Eibar 1936-37" mugikorrendako aplikazioa erabiliz gero, edo QR kodea irakurrita, interes-gune horietako bakoitzean 1931 eta 1945 bitartean Eibarren izandako gertakizunen inguruko informazio esanguratsua eskaintzen da: II. Errepublika, Gerra Zibila, ondorengo berreraikuntza lanak... horiei buruzko testuak, argazkiak, irudiak, planoak eta bideoak, besteak beste.

Bisitak Ego Gain kalean (Unzaga Plaza hotel parean) hasiko dira, Labaderokua babesleku zaharraren aldamenean: "Ezbeharraren airearen kontrako Eibarko babeslekuetan" izenekoan 1937ko apirilaren 24 eta 25ean Mussoliniren legioko italiar abiazioren erasoaren berri jasoko du taldeak,

besteak beste. Handik Unzaga plazara (udaletxe plazara) abiatuko da taldea, "Unzaga plaza II. Errepublikaren ikur" delakoan 1931ko apirilaren 14ko ordu txikietan han bizi izandako gertaerak gogoratuzera.

EIBAR 1931-1945



Ezbeharraren airearen kontrako Eibarko babeslekuetan



Unzaga plaza II. Errepublikaren ikur



San Andres eliza Eibarren sakonen sustraitutako toki historikoa da



Erdi Aroko Eibarren gainean eraikitako Eibar berria



Eibarreko arma industriaren garrantzia eta haren eraldaketa.



Errepublikazale izatearren zigortutako herri sinbolikoa



Iragan aintzatsutik suntsipenera eta etorkizun itzaropentsura

Jarraian San Andres parrokiako hegoaldeko fatxadara joango dira, hango historia bertatik bertara ezagutzera. Bisitarekin jarraitzeko Bidebarrietaraino (San Agustineko bidegurutze aldameneraino) joango dira, Erdi Aroko Eibarren gainean eraikitako Eibar berriari buruzkoak entzuzera. Taldeak bisitatuko duen hurrengo interes-gunea Urkizun, Bittor Sarasketako bidegurutzearan dago eta han gure herriko armagintzaren garrantziak eta industriak izandako eraldaketaz jardungo dute. Behin horri buruzko azalpenak entzunda, Errebalera (BBVA eraikinaren ondora) abiatuko da taldea eta, ibilbidea amaitzeko, Toribio Etxebarriara joango dira. Azken bi puntu horietan herri errepublikazalea izateak Eibarri ekarri zion zigorrari eta herriaren suntsipenari buruz arituko dira.

Lau zapatutan egingo dituzte gidatutako irteera hauek, honako egun eta orduetan: urriak 19an (gaztelera, 09:00etatik 12:00etara); urriaren 26an (euskeraz, 10:00etatik 13:00era); azaroaren 9an (gaztelera, 10:00etatik 13:00era); eta azaroaren 16an (euskeraz, 10:00etatik 13:00era). Doakoak izango dira eta talde bakoitzeko 20 lagun onartuko dituzte. Hori bai, izena aurretik eman behar da, urriaren 17rako, 943708435 telefono zenbakira deituta edo kultura@eibar.eus helbidera idatzita.

Prostituzioa ezbaian

Prostituzioa eta sexu-lana auzian jarriko dituzte Andretxeak hilabete honetarako antolatu dituen hitzaldiek. Prostituzioaren edo sexu-lanaren erregulazioa, amaitzea, gizonzkoek esku-hartzea, pornografia... Portaleko areto nagusian azalduko dira gai hauen inguruan asko esateko duten hiru pertsonen eskutik eta eztabaida honetan dauden iritzi kontrajarriak erakutsiz.

Conxa Borrell Bernaus OTRAS sindikatuko idazkari orokorrak eskainiko du lehen hitzaldia urriaren 15ean, martitzenean, 18:00etan. Escort gisara egiten du lan Borrellek eta 'Sexu-lana: lan-eskubideak, sindikatzea edo esplotazioa' izenburua duen hitzaldia eskainiko du. *"Prostitutak, masajista erotikoak, pornografian lan egiten dutenak, telefono bidezko sexua eskaintzen dutenak, poll dance dantzariak... lanbide guzti horiek sartzen dira sexu-lanaren barruan eta inoiz ez da egiten berba eurei buruz"*, dio Borrellek telefonoaren beste aldetik. Hain zuzen ere, jardura horiek egiten dituzten pertsonen lan baldintza eta eskubideei buruz egingo du berba Portalean.

OTRAS sindikatua 2018an jaio zen, baina Magdalena Valerio ministroak *"gol bat"* sartu zietela onartu ondoren gaia auzitegiara eraman eta Auzitegi Nazionalak sindikatuaren estatutuak baliogabetu zituen, *"Espainian prostituzioa ez delako legezkoa"*. OTRAS-ek helegitea jarri zuen Auzitegi Gorenean eta erantzunaren zain daude oraindik. *"Erabakia bata edo bestea izan, mugimendu hau ez da geldituko"*.

Borrellentzat oso garrantzitsua da sektore honetan sindikatzeak aukera egotea. *"Ez dago sexu-langileen eskubideak bermatzen dituen legerik. ANELA elkarteak (harremanetarako lokaletako enpresarien elkarteak) indar asko du eta Auzitegi Gorenak abala eman dio, baina guri ez digute sindikatzen uzten. Eta gero abolizionistei entzun behar diegu gu garela lobby proxenetak. Hau da marka, gosez hiltzen gaude ba!"*. OTRAS-en eskaera simplea da: *"Beste edozein langilek dituen eskubide berdinak eduki nahi ditugu"*.

OTRAS-ek *"sexu-lanaren"* erregulazioaren alde egiten du. *"Gaixorik jartzen bagara, ezin dugu ezer egin; poll dance egiten erori eta min hartzen badugu, hiru astetan geldirik egon behar duzu eta ezin duzu dirurik irabazi. Beraz, nola ordain-*



Conxa Borrell

zaten duzu etxearen alokairua? Umeak badituzu, nola zainduko dituzu? Lotsagarria da sexu-langileek Gizarte Segurantzari ez edukitzea eta patronalari egiten zaion defentsa, ez dutelako zergarik edo Gizarte Segurantzari ordaintzen. Autonomo izateko esaten digute, baina autonomo faltsuak izango ginatete eta ez da legezkoa".

Abolizionistekin duten eztabaida beroa da eta Borrellek berba gogorak ditu eurentzat. *"Eibarren abolizionistekin mahai-ingurua egin nahi genuen, baina eurek ez. Beldurra dute"*, dio haserre. *"Gure kontura bizi dira, gutaz berbetan eta hitzaldi bakoitzean 300-400 euro irabaziz. Eurak bai direla proxenetak. Abolizionismoa klasisimo eta arrazismo hutsa da"*.

Gizonzkoak prostituzioaren oinarrian

Peter Szil (www.szil.info) psikoterapeuta eta aktibistak eskainiko du bigarren hitzaldia hilaren 22an, martitzenean, 18:00etan. 'Gizonzkoak, pornografia eta prostituzioa' izenburuak *"ederki azaltzen duen bezala"*, gizonzkoek prostituzioan, emakumezkoen salerosketan eta pornografian

duten egitekoari eta fenomeno haiek zeharkatzen dituen hariari buruz egingo du berba Szilek. *"Gizonzkoen eskaera dago fenomeno hauen oinarrian"*.

Prostituzioaren eta pornografiaren lotura erabatekoa da Szilen iritziz. *"Pornografia berba, adibidez, 'porne' (Antzinako Greziako prostituten hiru klaseetatik baxuena) eta 'grafia' (irudikatzea) berba grekoen batura da"*. Bere ustez pornografiak prostituzioaren funtzio bera du: *gizonzkoen nahiak asetzea. "Pornografian irudikatzen den pertsona erosi daitekeen produktu bat da. Gainera, bera ez da protagonista, irudi horiekin masturbatzen den pertsona baizik"*.

Pornografiak igortzen duen sexualitatearen kontzeptura ohitzen diren pertsoneri, *"euren sexu-gosea asetzeko objektuak edukitzera ohitzen direnei"*, zailagoa egingo zaie sexualitate propioa duten emakumeekin berdinetik berdinerara harremana edukitzea. *"Beraz, hor irekitzen da prostituzioaren atea, hau da, pornografiaren luzapena. Prostituzioan pornografiaren fantasiak gauzatzen direlako"*.

Teknologia berriek pornografiaren ekoizpen eta kontsumoa aldatu dute. *"Internetekin pornografia produktu masiboagoa bihurtu da eta eragina izan du gazteen sexualitatean"*. Aldaketa kuantitatiboaz gain, kualitatiboa ere eman da. *"Pertsona oso gazteei osasun arazoak sortu zaizkie pornografiaren erabilera masiboarengatik, disfuntzio zutikorra adibidez. Gainera, zo-*



Peter Szil

rigaiztoko kontzeptuekin prestatzen dira sexualki". Azken aldian, bestetik, pornografia gero eta biolentoagoa dela nabaritu du Szilek. "Produktu masiboa denez lan-tzean behin berritu egin behar da eskaera eta interesa mantentzeko". Gero, pornografiako eredu horiek sexu-ohituretan islatzen dira bere ustez.

Prostituzioari dagokionez, abolizionismoaren aldekoa da Szil. "Zentzugabea da emakumeek euren gorputza saltzeko duten eskubideaz berba egitea. Prostituzioa erregulatzen badugu, biolentzia-mota bat legitimatuko dugu". Szilen iritziz eztabaida honetan ez da pertsonen prostituitzeko duten eskubidea ezbaian jartzen, "gizonezkoek beste pertsona batzuen gorputza erosteko duten eskubideaz eta proxenetek horrekin negozioa egiteko duten eskubideaz baizik". Berarentzat milioika pertsonen sufrimendua legalizatzea jartzen da auzian. "Prostituten %10ak nahi duela egiten du jarduera hori, baina mundu mailan milioika emakume biolentzia egoera latzetan behartuta prostituitzen dira, tartean ume asko".

Abolizismoaren alde Euskal Herrian

Amelia Tiganus aktibista feministak eta emakumeen salerosketako biktima ohiak emango du azken hitzaldia hilaren 23an, eguaztenean, 18:00etan. 'Emakumeak eta umeak: prostituziorako salgaiak. Nola fabrikatzen da puta bat?' izenburua du bere solasaldiak eta hainbat urtetan bizi-



Amelia Tiganus

tako esperientziaren berri emango du. Tiganus 13 urterekin bortxatua izan zen eta bere herrialdeak baztertu egin zuen. Irtenbide bezala prostituzioan lan egiteko eskaintza egin zioten, urte bitan bizitza konpanduta izango zuelakoan. Baina ez zen horrela izan. "Baietza eman nuenez, ez nuen nire burua salerosketaren biktimatzat jo". Proxenetak 300 eurogatik erosi zuen eta 40 prostituzio-etxetan esplotatu zuten ondoren.

Bost urtetan zehar "prostituta zoriontsuaren papera egiten" ibili ondoren, Tiganusek ezin zuen gehiago jasan eta utzi egin zuen. "Ateak zabalik dauden arren,

emakumeontzat alde handia dago bi munduen artean". Hamabi urte pasa dira utzi zuenetik eta feminismoa ezagutzeak aktibismoaren eragile bihurtu zuen. "Konturatu nintzen nire istorioa ez zela soilik nirea, prostituzioan egunero erortzen diren emakumeen eta neska askoren istorioa baizik".

Tiganusek hainbat elkarterekin egin du beharra eta aste honetan aurkeztu duten Euskal Herriko Mugimendu Abolizionistaren (EHMA) kide ere bada. Elkartearen iritziz prostituzioa sexualitate maskulinoaren eredu bortitz eta misoginoa da, eta pornografia eta alokairuko sabela emakumeen gorputzak esplotatzeko moduak dira. Prostituzioarekin amaitzea da plataformaren helburu nagusia eta, horretarako, gizartearen sentsibilizazioa lortzea da taldearen lehen xedea.

Prostituzioaren indargabetzea lortzeko gizarte-politika integralak exijitu behar direla uste du Tiganusek. "Ez soilik laguntza ekonomikoarekin, baita formazioarekin, terapiarekin eta laguntza-juridikoarekin ere". Bestetik, proxenetismo modu guztiak debekatu behar direla uste du eta prostituzioaren promozioa kentzea.

Prostituzioa erregulatzeari dagokionez dio Herbehereetan eta Alemanian, adibidez, horrelako esperimentuak egin direla eta desastre hutsak izateaz gain, proxenetei egin diela mesede. "Eztabaida zintzo bat nahi dugu, eta feministok ados gauden puntuak ikusarazi".



SOLDADURA IKASTAROA (EIBARKO UDALAK SUSTATUTA)

- TITULAZIO OFIZIALA (915h)
- EIBARREN ERROLDATUTAKO PERTSONEEI ZUZENDUTA
- DIRULAGUNTZA ASISTENTZIAGATIK
- LAN PRAKTIKAK ENPRESETAN !! LAN AUKERA !!

INFORMAZIO GEHIAGO:

MEKA LANBIDE ESKOLA . ELGOIBAR 943 74 80 19



Malen Illarramendi (GazteON-eko koordinatzailea):

“Jendearen artean zeresana pizten duten gaiak landuko ditugu”

...eta kitto! aldizkariaren GazteON atalak aro berria hasi zuen joan den astean. Azken urtean zehar YouTube bideoak publikatu ondoren podcasten aldeko apostua egingo du hemendik aurrera eta Ivoox eta Spofyfn entzuteko aukera egongo da. Genero indarkeriari buruzko mahai-inguru batekin eman zitzaion hasiera eta Malen Illarramendik proiektu berriaren nondik norakoak kontatu dizkigu.

- Zer da podcast bat?

Ingeleseko berba bat da, iPod (Apple enpresaren gailua) eta broadcast (soinu eta bideo seinaleen distribuzioa) terminoen batura. Gure kasuan eztabaida edo mahai-inguru bat audioan grabatuko dugu, plataforma digital batera igo eta zabalkunde egiteko.

- Urtebete darara GazteON proiektuak, baina podcastarekin aro berri bat hasi du. Zergatik podcasten aldeko apustu hau?

Jendeak YouTube ikusten zituen, baina YouTubek atentzio gehiago eskatzen du, irudi bat ikusi behar delako. Gainera, bideoak mugikorrean ikusteko mega asko behar direnez, wifia dagoen toki batean egotea komeni da. Bestetik, baliteke pantaila txiki batean bideoa gustora ez ikustea eta telebista behar izatea erosoago ikusteko. Ondorioz, jendearen aldetik ahalegin gehiago eskatzen du YouTube bideo bat ikusteak podcasta entzuteak baino. Audioak, azken finean, kotxean entzun ditzaitez, aurikularrak jantzita kalean ibiltzean... ez zara ezer ikusten egon behar. Iru diak kendu eta audioari garrantzia handiago eman nahi izan diogu, proba bezala.



- Aurreko astean argitaratu zen lehenengo podcasta. Nolako erantzuna izan du?

Inguruko jendearengandik erantzun positiboa jaso dut. 40 minutu irauten du, luzezia agian, eta hurrengoan laburragoa egiten saiatuko gara. Zaila da pertsona bat 40 minututan zerbait egiten egotea. Hala ere, jendeak ondo hartu duela uste dut. Gainera, podcasta Spofyfn dago eskuragai eta jendearentzat eroso da gaur egun edonork erabiltzen duelako Spofyfn.

- Genero indarkeriari buruz egin zenuen berba. Nola moldatu zinen mahai-ingurua gidatzen?

Grabaketak ordubete eta hamar minutu iraun zuen eta 40 minutura moztu genuen. Genero indarkeria gaiaren barruan zazpi alor landu genituen eta hurrengo podcastean hiru edo lau jorratuko ditugu, gehiegi ez luzatzeko. Genero indarkeriarena gai sakona da eta hizlariak oso gauza interesgarriak esan zituzten, beraz, zaila zen zeozer kentzea.

- Aurrerantzean ere horrelako gai sakonak landuko dituzue?

Denetariko gaiak landuko ditugu. Hurrengo podcastean, adibidez, inteligentzia artifizialari buruz egingo dugu berba. Siri, Alexa, Google Assistant eta hauek erakusten digute gero eta gizarte robotizatuago batean gaudela, eta etorkizunean robotak egongo badira, zertarako egongo gara gu? Genero indarkeriarena gai sakon eta delikatu zen, eta aurrerantzean delikatuak ez dakit, baina gai sakonak bai landuko ditugu. Jendearen artean zeresana pizten duten gaiak.

- YouTube bideoak, ...eta kitto!-n idatziz, podcasta... Arlo guztietan eroso sentitzen zara?

Gehien gustatzen zaidana idaztea da, baina eroso sentitu nintzen podcasteko mahai-ingurua bideratzen eta gustora egiten ditut bideoak ere.

- Etorkizunean 'kazetari multimedialak' beharko zirela zioten adituek. Etorkizuna iritsi da?

Bai. Kamera aurrean eta atzean egoten, idazten, bideoak editatzen... ikasi behar duzu. Hau da, kazetaritza munduko alor guztiak lantzen jakin behar duzu pixka bat.

15. Kameratoian adrenalina pizteko epea zabaldu dute

Martitzenean zabaldu zuten 15. Kameratoian, 18 eta 35 urte bitarteko gazte-entzako euskerazko ikus-entzunezkoen rallyan parte hartzeko izen-ematea eta urriaren 23ra arte egongo da zabalik, Kameratoian webgunean. Euskaltzaleen Topaguneak Lekeitioko Euskal Zine Bilerarekin batera antolatzen duen lehiaketa urriaren 25ean (online) eta urriaren 26 eta 27ko asteburuan ospatuko da, Lekeition bertan. Antolatzaileren berbetan, "15. Kameratoia inoiz baino indartsuago dator, gainera. Urte honetan izena ematen duten eta bertan lo gelditu nahi duten lehen 30 lagunek zapatu gaueko egonaldia eta domeka goizeko gosaria doan izango dutelako, Lekeitioko Trinkete Aterpetxean lana entregatzearen truke".

Rallyaren gaia online bidez

Urte honetako Kameratoia "parte-hartzaileen adrenalina piztera" datorrela azaldu dute arduradunek: "Izan ere, edizio berri honetan gaia urriaren 25ean, 19:00etan



iragarriko da Kameratoiko webgunean. Hurrengo egunean, urriaren 26an, 10:00etatik aurrera Lekeitioko Kultur Etxeko ateak zabalik egongo dira, parte-hartzaileek film laburra egiteko beharko dituzten gutxieneko ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko. Hortik aurrera, domekako (urriak 27ko) 12:00ak arteko denbora izango dute gidoia egin, grabatu, muntaia egin eta lana Lekeitioko Ikusgarri Zine Aretoan aurkezteko".

Hirugarrenez, Lekeitioko txoko eta kaleak izango dira euskal film laburren lekuko. Horrez gain, antolakuntzak muntaia egiteko azpiegiturak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, "euren lanak kalitate hoberean egingo direla bermatzeko. Adrenalina gustoko duten gazteek euren abilezia probatzeko, dibertitzeko eta jende berri giro ezin hobean ezagutzeko galdu ezin duten aukera".

Izen-ematea urriaren 23ra arte

Kameratoian parte hartu nahi dutenek urriaren 23ra arte izango dute izena emateko aukera, <https://irudienea.topagunea.eus/egitasmoak/kameratoia/> webgunean. Antolatzailerekin azpimarratu dutenez, "aurten, gainera, asteburu Lekeition mu-

su-truk igarotzeko aukera dago izena ematen duten eta bertan lo gelditu nahi dutenen lehen 30 lagunentzat. Beraz, oso garrantzitsua da bertan lo egin nahi dutenek izen-emate fitxan markatzea".

Film labur onenak 1.000 euroko saria irabaziko du eta bigarren onenak, berriz, 600 euro. Horrez gain, Publikoaren Saria ere emango dute eta irabazleak bertoko produktuekin betetako otar ederra jasoko du.

Antolatzailerekin azaldu dutenez, "Kameratoiko helburuetako bat euskal sortzaileen filmak ezagutaraztea da eta, beraz, ekoiztutako lan guztiak Creative Commons aitortu-partekatatu lizentziarekin zabalduko ditugu, hainbat egitasmotan partekatuz. Kameratoiko lehen saria irabazten duen film laburra Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen dituen Laburbira zirkuitu ibiltariaren barruan sartuko da zuzenean. Horrez gain, abenduaren 8an Durangoko Azokaren esparruan ospatzen den Irudienea gunean antolatzen den DemaSA (Sortzaile Amateurren Dema) lehiaketan parte hartuko du, Euskal Herrian antolatzen diren rally edo lehiaketetan finalista izan direnekin lehiatuz. Eta bigarren saridunak ere, 600 euro irabazteaz gain, azken lehiaketa honetan hartuko du parte".





iraia muñoz

Lehenengo kolore eta emozioen arteko loturak zehaztu ziren eta, ondoren, horiek herrialdeekiko espezifikoak ziren edo ez identifikatu ziren.

Koloreen bidez jatorria asmatzen

Gure ingurua kolore ezberdinez osatuta dagoen neurrian, guk ere koloreak hautatzen ditugu, gure janzkeran edota inguruko objektuetan. Koloreen aukeraketa oso gutxitan gertatzen da zoriz. Batzuetan, bakoitzaren gustuaren arabera izaten da; eta beste batzuetan, koloreek sortzen duten emozioaren arabera izan daiteke. Izan ere, aspalditik koloreak emozioekin lotu izan dira, baina pertsona bakoitzak lotura zehatz hori nola sortzen duen ez da asko aztertu.

Horren harira, aurreko astean jakin izan genuen Suitzako ikerketa talde bat lotura horiek argitzen ahalegindu dela. Horretarako burututako ikerketan, lau herrialdeetako (Txina, Alemania, Grezia eta Erresuma Batua) 711 parte-hartzailek 12 kolore 20 emozioekin lotu behar izan zituzten zenbait galdetegiren bidez. Bertako emaitzak ikasketa automatikoarekin sortutako algoritmo informatikoekin aztertu ziren. Hau da, lehenengo kolore eta emozioen arteko loturak zehaztu ziren eta, on-



doren, horiek herrialdeekiko espezifikoak ziren edo ez identifikatu ziren. Orokorrean kolore "beltza" tristurarekin erlazionatu zen lau herrialdeetan, eta "gorria", berriz, amodioa/plazerra edo amorruea/gorrotoa bezalako emozioekin. Bestalde, jatorri kulturalaren arabera koloreak ziren zenbait ezberdintasun identifikatu ziren: alemaniarrek kolore "marroia" atsekabearekin lotu zuten, greziarrek "morea" tristurarekin eta txinatarrek "zuria" emozio negatiboekin. Ondorioz, algoritmo informatikoek, koloreen eta emozioen loturetatik abiatuz, parte-hartzaile bakoitzaren jatorria aurreikusteko gaitasuna garatu zuten, %80ko efizientziarekin.

Ikasketa automatikoaren programa informatikoa emozioen arloan erabiltzen den lehenengo aldia da eta, besteak beste, emozioen eta horien ondorioz sortzen diren erantzun fisiologikoen arteko loturak aztertzeko lan tresna bezala erabili ahal izango da aurrerantzean.

teko loturak aztertzeko lan tresna bezala erabili ahal izango da aurrerantzean.



asier ezenarro

Zenbat manikeismo hainbat filmetan: badirudi ikusleek nahiago dituztela Amenabar eta beste zuzendarien umekeriak ganorazko lanak baino

Espainiako zinea eta 1936

"Mientras dure la guerra" Alejandro Amanabar zuzendariaren azken filma Miguel de Unamuno idazleak gerra zibilean eutsi zuen jarrera politikoari buruzkoa da. Agian egitasmo handiegia Amenabarrentzat, kontutan hartuta -berak aitortu duen moduan orain arte ez zuela berririk Salamancako Unamunoren hitzaldiari buruz. Orain dela urte batzuk "Mar adentro" bere pelikula ikusi nuen eta manipulazio hutsa iruditu zitzaidan, irrimarra bat, manikeismo okerrenarekin eginda. Filme hartan eutanasiaren aldekoak giza eskubideen alde eta giza-balioz beteta agertzen dira eta aurkakoak, aldiz, atzeratutako pertsona ilunak izango balira lez. Orain Salamancako Unibertsitatean Unamunoren eta Millan Astrayren arteko gertakizuna aurkezteko hurbildu da zinemagilea. Ez dakit zer pasatzen den zine espainiarrarekin eta 1936ko gerra zibilarekin. Jose Luis Cuerdak ere "La lengua de las mariposas" filmean maisu errepublikarra umeen lagun bezala aurkeztzen du, gizaki zerutiar gisa. Irakasle katolikoak, guztiak, txarrak eta frankistak dira: manikeismoa berriro.

Euskal zineman ere badago manipulazioa aurkitzerik. Koldo Serraren "Gernika" filmea irragarria bihurtzen da, hain zuzen. Komunistak dira indar ilunak filme horretan. Sobietarrak Euzkadi kontrolatzen. Harrigarria. Non dokumentatzen dira zuzendariok filme bat egiteko?

Zein desberdina den Jose Maria Berzosa dokumentalista haundiarren lana. Berzosa 1956. urtean Parisera joan zen, Francoren diktaduraren aurkakoa zelako. Bere lan ugariaren artean "Pinochet y su tres generales" aukeratuko nuke. Lan bikaina. Elkarrizketen bidez Txileko militar eskuindarren pentsakera jartzen du mahai gainean.

Berzosaren lana aintzat hartzeko Hegoamerikako eta Txileko historia ulertu behar duzu lehenago; bestela, ez dituzu ulertuko elkarrizketok. Hor badago ikaragarritzko lana. Baina Berzosa iaz hil zen eta kalean ia inork ez du ezagutzen.

Dirudenez, ikusleek nahiago dituzte Amenabar eta besteen umekeriak ganorazko lan bat baino.

Eguna 2019



Urriak 5, zapatua,
Untzaga plazan




26. SAGARDO EGUNA EIBARREN: goizez (12:



BI TIKET
mota



26. edizioa
2.340 sagardo botila
200 kg. txorizo
15 kg. gazta
70 lagun lanean



Sagar-tarta lehiaketa egingo da aurten ere Sagardo Egunean.

Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Tartak etxetik ekarri beharko dira prestatuta eta Untzagan aurkeztuko dira (partehartzaile bakoitzeko bat) 12:30etik 13:00etara (tolarearen ondoan).

16 urtetik gorako edozeinek hartu ahal izango du parte. Gutxienez 4 raziokoa izango da. Epaimahaiak aurkezpena, testura eta zaporea hartuko ditu aintzat, eta sariak egunean bertan banatuko dira:

150€ (1. saria), 100€ (2. saria) eta 50€ (3. saria).

Epaimahaikideak Mireia Alonso sukaldaria, San Andres gozotegiko Aitor Cano, Ermuko Gorrotxategi gozotegiko Maite Gorrotxategi eta Fernando Mendez (herritarren ordezkari moduan) izango dira.



30 sagar-tarta inguru aurkeztu ziren iazko lehiaketara.

13 sagardotegi

Alorrenea (Astigarraga) Alzueta (Hernani) Barkaiztegi (Donostia) Begiristain (Ikaztegieta) Egi-Luze (Errenteria) Gartziategi (Astigarraga) Gaztañaga (Andoain) Gurutzeta (Astigarraga) Isastegi (Tolosa) Olaizola (Hernani) ~~Sarasola (Asteasu)~~ Zapiain (Astigarraga) Zelaia (Hernani)

Euskaltzaletasunari saria

Aurtengo Sagardo Eguna ere badu berritasunik. Euskeraren alde egindako lana aitortzeko plaza polita dela pentsatu du Sagardo Eguna antolatzen diharduen Batzordeak eta horrela egingo du, bai aurten eta baita hurrengo urteetan ere. Euskeraren aldeko jarrera, euskeraren alde egindako lana eta euskaltzaletasuna saritu eta aitortuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak bihar, Sagardo Egunean. Osagai guzti horiek betetzen ditu bete-betean Aitor Gorosabelek eta bera izango da

aurtengo saritua. Euskaltzale amorratua, euskera gaiekin oso inplikaturia, eta aktiboa, laguntza eskatzen zaion bakoitzean beti prest, eta pozarren gainera. ...eta kitto! Euskara Elkarteak bera ere gertutik ezagutzen du Aitorrek. Elkartearen eta aldizkariaren sorreran jardun zuen eta kazetari moduan lehenengo urratsak ere bertan eman zituen. Esther Galartzak egindako oroigarria jasoko du Aitorrek Untzagan, eguerdiko 12:00etan, Sagardo Eguna hasi baino lehen.



Aitzol Arrillaga:

“Sagardo Eguna egun berezia bihurtu da eibartarrontzat”



Aitzol Arrillaga
2009ko
Sagardo
Egunean eta
iaz Ander
Larrañagarekin
ateratako
argazkian.

- Zergatik animatu zinen parte hartzera?

Orain dela 10 urte sagardoa banatzeko jendea behar zela esan zidaten eta animatu egin nintzen. Esperientzia gustatu zitzaidan eta urtero egon naiz laguntzen. Niretzat ohitura bihurtu da Sagardo Egunean sagardoa banatzen ibiltzea.

- Beti bikote berarekin?

Orain arte Ander Larrañaga lagunarekin joan izan naiz beti, baina aurten lan egin behar du eta ezin da etorri.

- Nolako aldaketak igarri dituzu azken urteetan?

Goizez egin zen lehenengo urtea gauza berria izan zen jendearentzat, ezustekoa, eta plazan zegoen jende nagusia ibili zen batez ere. Gero, goizeko txandak indar asko hartu du azken urteotan. Goizean jende gazte asko etortzen da orain. Sagardo Eguna egun berezia bihurtu da eibartarrontzat eta jendea zain egoten da. Kuadrilek bazkariak egiten dituzte edo, gutxienez, zerbait hartzeko elkartzen dira.

- Zure kuadrila ere?


Bai, noski! Sagardoa banatu ondoren eurekin bazkaltzen dut eta arratsaldean Untzagara itzultzen naiz arratsaldeko txandarako.

- Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Untzagan sortzen den giroa. Ez bakarrik Sagardo Eguna irauten duen ordutegian, baita gero ere. Jendea pozik ikusten da.

Unai Campo:

“Laguntzaileak elkartu eta txotx egiten dugun unea gustatzen zait”



Bi argazkien
artean 13 urte
pasa dira.

- Noiztik zaude Sagardo Egunean lanean?

Orain dela 18 urte inguru hasi nitzen laguntzen. Urtean behin egoten den ekitaldia da, euskeraren aldekoa eta kriston giro polita sortzen da. Bolondresen artean ere beti egon da oso giro ona. Amaitzerakoan gustora joaten gara elkarrekin soziedadera afaltzera. Eta jende ezagun askorekin egiten duzu topo egunean zehar.

- Sagardoa botatzen ibili zara beti?

Normalean bai, baina urte baten “liberatu” egin ninduten eta kanpotik etorritako sagardogileei Eibarren egiten dugun lana erakusten ibili nintzen.

- Azken aldian antolakuntza batzordean ere sartuta zaude.

Bai, 3 urte inguru daramatzat Sagardo Egunean antolaketaz arduratzen den taldetxoan sartuta. Beti laguntzeko prest. Ideiak ematen eta berritasunak sartzen ahalegintzen gara, sagar-dastaketa, sagar-tarta lehiaketa edo aurten berritasuna izango den euskaltzaletasunari saria. Sagardo Eguna edatea baino zerbait gehiago dela uste dugu. Sagardoaren inguruko kultura jendearengana gerturatzen ahalegintzen gara. Azkenean, guk ere gauza mordoia ikasi dugu.


- Momentu berezirik azpimarratuko zenuke?

Goizean hasten den momentua asko gustatzen zait, laguntzaile guztiak elkartu eta txotx egiten dugun unea, balkoitik ofizialki sagardo egunari hasiera ematen zaion bitartean. Gero, egunean zehar momentu lasaiak eta ez han lasaiak egoten dira, baina trankil hartzen dugu.

26. SAGARDO EGUNA EIBARREN

Sagardo Eguna, talde handi baten lan handiaren emaitza

3-4 hilabete lehenago ekiten dio lanari Sagardo Eguneako Batzordeak: sagardogileekin harremanetan jarri, egunaren antolaketa, berritasunak pentsatu... eta udako oporren ostean edalontziak, zapiak, txorizoa eta gazta eskatu, sagarrak bildu, sagardoa kamioietan ekarri eta Sagardo Egunera arte gorde, eta eguneko lantaldea bilatu eta antolatu. Gustora egindako lana, nolana ere, herritarren erantzuna ere maila berekoa izaten da-eta. **Bihar dugu hitzordua Untzagan eguerdiko 12:00etatik aurrera!**



#sagardoetakitto Instagram

lehiaketa

Lehiaketaren oinarriak:

- 1- @gaztekitto Instagram kontuaren jarraitzaile izan.
- 2- Eibarko Sagardo egunean ateratako argazkiak igo Instagramera, #sagardoetakitto traola erabiliz.
- 3- @gaztekitto etiketatu.

Igo zure argazkia urriaren 8a baino lehen!

Argazki originalenaren egileak 12 sagardotegitako botila bana jasoko du. Animatu eta parte hartu! Zeren zain zaude?



Errugbiko lehen bi taldeak irabazle azken jardunaldian

Ohorezko B mailan jokatzeko Eibar Rugby Taldeko gizonezkoen zein emakumezkoen taldeek denboraldiako lehen garaipena lortu zuten aurreko asteburuan. Emakumezkoen taldeak Gernikan irabazi zuten Euskal Ligako lehen jardunaldian (5-21), Eider Olarra, Nuria Yurri eta Kaiane

Bedonezen entsegueri esker. Gizonezkoen taldeak garaipen borrokatua lortu zuen Unben, lehenengo, ligako hirugarren jardunaldian, aurreko bietan talde indartsuenen aurrean galdu eta gero. Askok kostatu zitzaizkien lau puntuak eskuratzeko Gaston Ibarbururen mutilei: Franco Maggiolok lortuta-



Lagun berri asko sartu da Eibar Rugby Taldeko akademian.



Senior mailako bigarren taldea.

ko entseguari bizkaitarrek beste birekin erantzun zioten eta eibartarrek berriro irauli behar izan zuten markagailua, azkenean 13-12 irabazteko. Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, Urgozoren aurrean 56-14 galdu zuten Zornotzan, atsedenaldira 30-7 atzetik joan eta gero. Oraingoan 18 urtetik

azpiko taldetik gazte asko igo dira eta horiei gehitu zaie Mohamed eta Amine. Azkenik, asteburua aprobetxatu zuten "akademiko" 16 eta 18 urtetik beherako taldeek lehen partiduak jokatzeko Unben, oraingoan Ordiziaren aurka jokatzeko. Talde horietan hamar gazte estreinatu ziren.

Escuderia Eibarko taldea hirugarren Torres del Rioko proban

"Nahiz eta abiadura nahikoa atera garaipenaren bila joateko", Narbaiza eta Etxeberriaren aurretik lehenengo erlojupekoan irten zen autoa harrapatzeak ez zion mesede asko egin Escuderia Eibarko taldeari, proba irabazteko denbora asko galdu zutelako eibartarrek, "garaipenaren bila abiadura nahikoan" irten baziren ere. Horren ondorioz Torres del Rioko rallya hirugarren postuan amaitu zuten, Izagirre-Ruiz eta Zubimendi-Mujika taldeen atzetik. Hala eta guztiz ere, Narbaiza eta Etxeberriak Sportech Kopako lidergoan jarraitzen dute bi proba bakarrik geratzen direnean txapelketa amaitzeko. Hurrengo lehia Gernikako rallyan izango dute, hilaren 12an.



Iñaki Narbaizak eta Unai Etxeberriak lidergoari eusten diote.

Eibarko emakume korrikalarien taldea osatu da

Aurreko astean aurkeztu zuten Klub Deportiboan emakume korrikalarien ideia berria eta 15 lagun elkartu ziren Eibarko emakume korrikalarien taldea martxan jartzeko. Taldeko kide izateko



baldintza bakarria emakumea izatea da: "Berdin da adina eta zein maila duen, arinetan egiteko gogoia badu eta zaletasun bera duten beste emakume batzuk ezagutzea nahi badu". Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldeak bultzatuta, dagoeneko elkar-tu dira Unben korrika egiteko, eta hurrengo topaeguna hilaren 15ean egingo dute toki berean, 19:00etan. Taldekoek diotenez, "gonbidatuta zaudete Eibarko emakume korrikalari guztiak edo antxitxiketan hasteko gogoia duzuenok!!".

VII. Asier Cuevas hurrengo zapatuan

Lasterketaren zazpigarren edizioa gero eta gertuago dago (hilaren 12an, 18:00etan) eta Deporrek antolatzaileek parte hartu nahi dutenei gogoratzen diete izena aurretik eman behar dela www.saikapenak.com helbidean eta 12 euro ordaindu, "horko flyerra bete eta Deporren eguazten arratsaldez entregatuta".

Ipuruako gimnastek bikain hasi dute denboraldia Donostian eta Gasteizen

Senior mailako boskoteak urrezko domina irabazi zuen Donostiako Izar Leku torneoan eta Gasteizko Hiriakoan. Nahia Arguiz, Alaitz Aranguren, Jennifer Hernandez, Madi Teran eta Arrate Barojak bi aro eta sei mazarekin egindako zailtasun handiko ariketak txundituta laga du jendea eta asteburu honetan azaroan Iruñean jokatu den Taldekako Espainiako Koparako txartela lortzen ahaleginduko dira. Junior mailako boskoteak, bestalde, zilarrezkoa bereganatu du aipatutako bi torneoetan.

Talde mistoa aurkeztu du Ipuruak lehenengo aldiz, Leioako Sakoneta taldetik etorritako Eneko Lambea Espainiako txapelkunak Sara Aranguren, June Heredero, Enara Bilbao eta Indira del Pinorekin hiru zinta eta bi aroekin egindako ariketan: *"Modalitate mistoa onartua dago euskal eta nafar federazioetan, baina Espainiak oraindik ez du errekonozitzen, aitzindari izan zenean gizonetzkoen banakako gimnasia onartzen"*. Donostiako Izar Leku bakarrik parte hartu zuten jubenil eta infantil oinarri mai-



Gasteiz Hiria torneoan parte hartu zuten Ipuruako taldeak.

lako taldeek zilarra irabazi zuten eta infantil boskoteak euren Espainiako lehenengo txapelketa jokatu dute azaroan. Bestalde, urriaren 19an San Andres Torneoaren XXI. edi-

zioa izango da jokoan Ipurua kiroldegian, euskal taldeekin batera, Kantabria, Asturias, Aragoi, Katalunia, Gaztela-Leon, Madril eta Balear Uharteetatik etorriko diren taldeekin.

Miren Urizar waterpolistak Olinpiar Komitearen domina jasoko du

Urbat-Urko tronik waterpolo taldeko jokalariek gaur arra-

tsaldean jasoko du, Igeriketako Espainiako Federazioak an-



tolatutako ekitaldian, azken denboraldian Europako eta munduko txapelketetan dominak irabazteagatik kirol merituari ematen zaizkion dominetako bat. Miren Urizarrek kadete mailako Europako txapela jantzi zuen Espainiako selekzioarekin Errusiako Kirishi herrian jokatuako lehiaketan. Bestalde, Urbateko emakumezkoen taldeak brontzezko domina lortu zuen aurreko asteburuan Euskal Herriko Superkopian. Eibarko taldeak WP9802 talderekin 15-6 galdu



eta gero, Leioako Askartzari 7-10 irabazi zion bere etxean, hirugarren postuaz jabetzeko.

Buelnan lehen ere irabazi du Aitorrek.



Aitor Hernandez prest dago ziklo-kros denboraldiari aurre egiteko

Ermuko txirrindulariak Specialized eta Ermua Inpulso izango ditu babesle nagusiak 2019-20 denboraldian ere. Ziklo-kroseko Espainiako txapela birritan jantzi duen Aitor Hernandezek bihar debutatuko du Kantabriako Mijarjoseko Cartercrosssean, etzi Los Corrales de Buelnan izango du hitzordua eta nazioarteko lehenengo proba Laudion itzarongo dio hilaren 26ean UCI C1 mailako lasterketan. Ziklo-kros egutegian, zortzi proba

aurrikusten ditu Ermukoak urrian, bederatzi azaroan, beste zortzi abenduan eta azken biak, Ormaiztegin eta Pontevedran (Espainiako txapelketa), urtarreko lehen bi asteburuetan. Aitor Hernandez Team taldea Javier Sanchez, Jose Luis Holguin eta Iker del Canto laguntzaile eta mekanikoez, Iker Lopez eta Ramon prestatzaileek, Jose Romanelli kiromasajista eta Jon Hernandez eta Marcos Marin prentsa-arduradunek osatuko dute.

Bihar hasiko dituzte igeriketa artistikoaren entrenamenduak

Aurreko ikasturtean hasitako bidetik, Eibar Igerixaneko igeriketa artistikoaren taldeak bigarren denboraldiari ekingo dio bihar, zapatua, goizeko 11:30ean hasiko diren entrenamenduekin. Dena dela, lehenengo eguna izanda, ate irekiak izango dira 11:00etatik aurrera, "zelan egiten dugun lan ikusteko, galderak egiteko, zalantzak argitzeko edo bestelako informazio eskaintze-



Eibar Igerixanekoek hasi dute dagoeneko ikasturtea.



Igeriketa artistikoaren taldea.

ko" igeriketa modalitate horren inguruan. Iazko esperientzia "bikaina izan zela" aprobetxatu eta bigarren denboraldi honetan "beste hainbeste goatzeko" asmoa dute.

Bestalde, igeriketako entrenamenduak ere hasi dituzte dagoeneko Eibar Igerixanekoek, "betiko moduan, indartsu eta gogotsu". Igeriketakoek ere prest daude euren taldea gehiago handitzeko: "Interesatuak lasai asko etorri daitezke kiroldegira eta gurekin harremanetan jarri".

Seitik sei: Aitor Montero pilotoa podiumean berriro ere

Eibarko motorzaleak Abiadurako Autonomien Arteko Kopa bereganatu du automatikoki lehiaketa amaitzeko bi lasterketen faltan. Valentziako Ricardo Tormo zirkuituan jokaturako azken proban bigarren amaitu zuen Monterok eta, lortutako puntuekin, 65 ateratzen dizkio bigarren sailkatuari. Baziren bi urte amañatarrak ez zuela Valentziako zirkuitua bisitatzen "eta motorra ere guztiz desberdina izan zen ordukoa". Entrenamenduetan

ezin izan zuen 10. postua hobetu, baina lasterketaren hasieran bosgarren kokatu zen berehala eta gero apurka-apurka aurrera egin zuen, azkenean bigarren amaitzeko. Geratzen zaizkion bi lasterketetan "goatzeko asmoa" du Aitorrek. Betiko moduan, ez du ahazten jasotako laguntasuna: "Arantzazu Guridi eta Ramon Izquierdori esker egin diet aurre sortutako arazoei. Eta babesle eta lagun guztiek ere asko lagundu didate".



20 mendizale izan ziren Picosera Deporrek antolatutako irteeran

Aurreko asteburuan Picos de Europako paisaje paregabearekin goatzeko aukera izan zuten Klub Deportiboak antolatutako irteeran parte hartu zutenek. Horrez gain, aukera aprobetxatu zuten 2.443 metroko Morra de Lechugales eta 2.229ko Pico de Samelar igotzeko. "Leku ederrean hartu genuen aterpetxea, Caseton de Andaran, eta tratua ere bikaina izan zen". Bihar beste irteera bat izango dute mendi batzordekoek, oraingoan Artzantza Naturbidearen seigarren etapa osatzeko, "Urbasako Bioitza eta Zudairen artean, tartean Pilatosen Balkoitik pasatuta". 22,8 kilometroko ibilbidea izango dute zain.



Eibartarrak nagusi Mutrikun

Mutrikuko Kalbarioko jaietan jokaturako bolo-txapelketan 25 parte-hartzaile izan ziren eta eibartarrak ondo nabarmendu ziren, lau onenen artean hiru sailkatuz: Felix Gomezek irabazi zuen tiraldia, Bittor Astigarragaren aurretik, eta Arkaitz Rodriguez laugarren amaitu zuen.

Eli Manzano bigarrenez joan da abuztuan Greziako errefuxiatuen kanpamenduetara. Lesbos eta Kiosen izan da eta martitzenean esperientziaren berri eman zuen Portalean. Medikuntza karreran ikasitakoa errefuxiatuen zerbitzura jarri du eta akroyoga klaseak ematen ditu baita ere. Ez du leziorik eman nahi, hemendik gertu gertatzen den gatazka bat erakutsi besterik ez.



ELI MANZANO (kooperantea):

“Ematen du ERREFUXIATUAK ez direla inor, ez direla existitzen”

- **Nolako sentsazioarekin itzuli zara Greziatik?**

Aurreko abenduan ere egon nintzenez, gutxi gorabehera banekien zer aurkituko nuen. Gainera, uda izanik, dena erlatibizatu egiten da eta sentsazio hobearekin joan nintzen. Eguzkipean gauzak beste modu batean ikusten dira, neguan gauzek larriagoak dirudite. Hala ere, gaur egungo egoera negukoa baino txarragoa da. Kan-

pamenduetan jende gehiago dago eta pilotuta bizi dira. Neguan Europako beste herrialdeetako asilo prozesuetan mugimendu gehiago zegoen. Horrez gain, abuztuan kanpamenduen beste aurpegi bat ikusi ahal izan dut, beste proiektu batean ibili naizelako eta, orduan, ez naiz itzuli hain sentsazio grisarekin.

- **Zertan ibili zara abuztuan?**

Hasieran, abuztuko lehen bost egunetan, Lesbosen egon nintzen Yoga and Sports for Refugees proiektuan yoga eta akroyoga klaseak ematen; hurrengo hamabost egunetan Kiosen egon nintzen Itsas Salbamendu Humanitarioaren (SMH) osasun-proiektu batean; eta hilaren azken hamaika egunak Lesbosen eman nituen. Elkarteen beharren arabera hara eta hona ibili naiz.

- **Zergatik erabaki zenuen Greziako errefuxiatuen kanpamenduetara joatea?**

“Errefuxiatuek sentitzen dute ez dutela irtenbiderik, ez dagoela laguntzarik eta zulo batean sartuta daudela”

Lehenengo aldian, abenduan, lankide batek SMH-ren mezu elektronikoa jaso zuen sendagile bila zebiltzala esanez. Guk ez dugu medikuntza-espezialitatekin ikasi oraindik, baina zerbait eskaini genezakeela pentsatu genuen eta elkarrekin joatea erabaki genuen. Izan ere, antzeko esperientziarik eduki gabe bakarrik joatea kolpe handiegia izan zitekeen. Abuztuko kasuan, bestetik, akroyogako pare bat lagunek esan zidaten Zaporeak proiektuarekin Greziara joan nahi zutela eta esan nien nik berriz joateko asmoa nuela SMH-rekin, baina beste zerbait egin ahal genuela. Errefuxiatuei kanpamenduetan dutena baino zerbait gehiago eskaini nahi nien, han barruan ez dutelako ezeri heltzeko aukerarik. Eurekin zuzenean partekatu ahal zen zerbait eskaini nahi genien eta akroyoga klaseak ematea polita iruditu zitzaigun.

- **Errefuxiatuek nola hartu zuten zuen proposamena?**



Akroyoga klaseak eman dizkie errefuxiatuei.

Oso ondo! Jende gaztea etorri da batez ere eta asko gustatu zaie. Oso errez hartzen dute dena eta esperientzia polita izan da.

- Zer aurkitu zenuen Greziara iritsi zinenean?

Lehenengo aldian sentitu nuen ni ez nintzela ni. Modu automatikoan jarduten duzu eta ez duzu pentsatzen bertan zer gertatzen den. Surrealismo kutsua dauka. Aurretik ez dut ezer jakin han gertatzen denari buruz, baina bapatean han nago; nire beharra ondo etortzen zaie ez dagoelako beste medikurik 4.000 pertsona zaintzeko, baina era berean ni ez naiz inor. Surrealista iruditzen zitzaidan ni izatea ardura hori hartzen zuen pertsona. Alde batetik, nire buruarekin txarto sentitzen nintzen, ez nekielako zein puntutara ino egon ahal nintzen lan hori egiten, ez nekielako gai izango nintzen. Baina bestetik, ni han ez banengo, ez litzateke beste medikorik egongo. Errefuxiatuek edozein pertsonak merezi dituen zerbitzu eta eskubide berak merezi dituzte, baina ematen du ez direla inor, ez direla existitzen.

- Hasierako sentsazio horri buelta eman zenion?

Momentu batean ikusten duzu zerbait eskaini ahal duzula eta eurek ondo jasotzen dutela. Momentu frustragarriak daude, baina egiten duzun gauza txiki bat eurentzat baliagarria dela ikusten baduzu, balio dizu.

- Udan zehar mintzagai izan da Open Arms, Europako herrialde batek ere jaso nahi ez zuen salbamendu-itsasontzia. Nola bizi izan zen hura kanpamenduetan?

Balkanetako herrialdeen mugen itxierak eragin dituen oztopoak igarri ditugu gehiago, jendea kanpamenduetan trabatuta geratu delako. Hala ere, dena dago lotuta. Errefuxiatuek sentitzen dute ez dutela irtenbiderik, ez dagoela laguntzarik eta zulo batean sartuta daudela.

- Zer dago 'errefuxiatuak' berbaren atzean? Zeintzuk dira? Nongoak? Zenbat?

Kolektibo anitza da. Kiosen 4.000 pertsona inguru daude eta Lesbosen 12.000tik gora, nahiz eta 3.000 pertsonentzako tokia bakarrik egon. Herrialde eta kultura ezberdineko jendea da, eta adinari dagokionez ere denetarik dago. Portaleko hitzaldian nik grabatutako bideo bat jarri nuen eta bertan 42 gizon batek esaten zuen bizitza zerotik hasi behar

zuela berriz. Nire gurasoak etortzen zitzaizkidan burura. Baliteke eurek ere egoerari aurre egitea, gizakiak aurrera egiten laguntzen dion botere antzeko bat duelako, baina ez ditut gizon horren egoeran imajinatzen. Bestetik, errefuxiatuentzat gogorra da hain kultura ezberdineko jendearekin elkarbizitzea, ghettoak sortzen direlako.

- Arazo edo gatazkak sortzen dira kanpamendu barruan?

Bai. Gainera, kontuan izan behar da oso baldintza zailetan bizi direla. Hala ere, ez dakit ondo han barruan zer gertatzen den. Badakigu mafia daudela, pertsonen-saleroketa dagoela, prostituzioa... Bizirautea da errefuxiatuen helburua. Errefuxiatu guztiak ez dira onak, baina ezta txarrak ere, denetatik dago. Gerratik ihes egiteak ez dizu pertsona txarra egiten, baina ukatua sentitzen bazara, beste modu batekoa bihurtu zaitezke. Gerra batek ihes egin ondoren inork ez zaituela babestu nahi ikusten baduzu, zure izaera bihurtu daiteke eta defentsa mekanismo bat eraikitzen duzu.

- Nork gobernatzen du kanpamendu barruan?

ACNUR-ek eta Greziako gobernua arduratzen dira kanpamenduez, baina Grezia da fardela bere gain hartu duena.

- Errefuxiatuenganako arreta mediatiakoa amatatzen joan da, baina errefuxiatuek hor jarraitzen dute. Beharrezkoa da arazo honetan fokua beti piztuta mantentzea?

Gutziz. Hondartzan agertu zen umearen irudia ikusitean denok hunkitu ginen, baina gero geure bizimoduarekin jarraitu genuen eta ahaztu egin zitzaigun zer gertatzen zen arazo horren inguruan. Normala da, aurrera egiteko dugun modua da, baina munduan gauza jakin batzuk gertatzen ari direla jakin beharko genuke,

“Errefuxiatuei laguntzeko ez dago Greziara kooperante joan beharrik, hemen gauza asko egin daitezke”



Elik taldekide bikainak aurkitu ditu Grezian.

eta guk esku-hartzea dugula eta gatazkaren parte garela.

- Zer dago gure esku?

Errefuxiatuei laguntzeko ez dago Greziara kooperante joan beharrik, hemen gauza asko egin daitezke. CEAR dugu hemen, adibidez, errefuxiatuei laguntza eskaintzen dien erakundea. Errefuxiatuen bidaia luzea da, baina ez da kanpamenduetan amaitzen. Europara heltzen direnek (oso gutxi) harrera zerbitzu bat behar dute eta CEAR eta antzeko elkarrekin bitartez eskaini ahal zaie laguntza hori. Beti behar dute laguntza. Bestetik, iberiar penintsulara migratzaile asko iristen dira Marokotik (aurten zifra hirukoiztu egin da) eta lan handia egin behar da zentzu horretan.

- Greziara bueltatzeko asmoa duzu?

Bai. Kiosen bizitoki berria aurkitu dut, gustora egoten naiz. Hango lagunekin primeran moldatzen naiz, oso talde-lan ona egiten dugu eta asko ikasi dut eurekin. Bizitzan zehar gauza asko egin ditut eta batetik bestera ibili naiz, baina zerbaitekin konpromezua hartzeko gogoia nuen eta kasu honetan hartu dut.



PEDRO ARRIOLA: Laster desagertuko den herriko bazterra.

Durangoko Doinu Zahar abesbatzako kidea da Amaia Urzainki, Durangaldean bizi den eibartarra. Bihar arratsaldean, 19:30ean San Andres elizan kontzertua emango du abesbatzak eta, taldeak gure herrian oso gutxitan abestu izan duenez, "eta programa horren polita izanda", ilusio bereziarekin datorrela esan digu. Aurreratu digunez, emanaldiaren lehen zatian "a capella" abestuko dute eta bigarrenean, berriz, pianoarekin, biolinarekin zein perkusioarekin lagundutako abestiak eskainiko dituzte.

AMAIA URZAINKI (Doinu Zahar abesbatza): "Biharko kontzertua oso berezia izango da"



Urzainki eskuman, belar gainean eserita.

- Nolako izango da biharko kontzertua?

Egitarauari begiratu gero, lehen zatian abesbatzak bakarrik jardungo du, musika barik. Abestiak eliza girokoak izango dira, kantu erlijiosoak batik bat. Eta bigarren zatian, berriz, instrumentuen laguntzarekin abestuko dugu, gaur egungo musika eskainiko dugu. Horrek esan nahi du musika oso ezaguna izango dela eta egilea oraindik bizirik dagoela, abesteko oso polita izango da.

- Nolatan sortu da Eibarren kantatzeko aukera?

Eibartarra izanda nik neuk banuen hemen abesteko gogoia, azkenean lagunak eta ezagun asko dauzkat. Egia esateko, ez gara sarritan kanpora joaten eta, orokorrean, gehi-

go jotzen dugu Gipuzkoako herrietara, baina taldean ere bagenuen Eibarren kantatzeko gogoia. Hori ikusita, mugitzen hastea erabaki eta Sostoaekin harremanetan ipini nintzen, baina hainbat kontu tartean, oraingoan eurei ez zitzaion ondo etortzen gurekin batera aritzea, eta elkarrekin kontzerturen bat egiteko aukera hurrengo baterako zabalik laga genuen. Hala ere, Sostoa abesbatza laguntzeko prest azaldu zen eta Xabier San Andres elizako parrokoak ere gauzak oso errez jarri zizkigun.

- Noiz eta nola hasi zinen kantuan?

Betidanik kantatu izan dut, txikitatik gusatu zait abestea: aitarekin, gitarrekin, lagunekin... edozein toki eta modutan. Baina, horrela, seriozki kantatzen, orain dela 27

bat urte hasi nintzen, Durangoko Musika Eskolako talde batekin. Eta hortik aurrera ez diot inoiz laga abesteari, beti egon naiz ikasten eta oraindik ere ikasten jarraitzen dut. Talde ezberdinetan kantatzen ibili naiz eta bakarka, berriz, orain dela bost bat urte hasi nintzen, gaur egun nire bikotea den pianojolearekin batera. Nire asmoa ez da profesional modura aritzea, baina bai horrelako duintasunez kantatzea. Kalitateari garrantzia ematen diot eta horregatik beti ari naiz ikasten, hobetzeko ahaleginetan.

- Biharkoa berezia izango da zuretzat?

Oso oso berezia izango da. Ez naiz horren urruti bizi, baina lehen Eibarren egiten nuen lan eta badirudi kontaktu handiagoa nuela herriarekin. Baina badira hamar urte Bilbon nagola beharrean eta gutxitan joaten naiz, horregatik biharkoa oso kontzertu berezia izango da niretzat. Gurea ez da abesbatza handia, baina zerbaitek bereizten bagaitu, abesten oso finak garela da. Horregatik, bihar jende asko etortzea nahiko genuke, benetan oso kontzertu polita izango da, edozeini gustatzeko modukoa.

EGITARAUA honako abestiek osatuko dute: "Blagoslovi dushe moya" (Ghospoda M. Ippolitov-Ivanov), "Quam pulchri sunt" (T. L. de Victoria), "Pulchra es, o Maria virgo" (G. P. da Palestrina), "Alleluia" (A. Martinaitis), "Bogoroditse Devo" (S. Rachmaninov), "Ecco mormorar l'onde" (C. Monteverdi), "Biolin musikaz" (D. Azurza), "Diraiton" (M. Lauridsen), "O Mistress Mine" (M. Harris), "Adiós Nonino" (A. Piazzolla), "Sure On This Shining Night" (M. Lauridsen) eta "5 Hebrew Love Songs" (E. Whitacre). 52 minutu iraungo du guztira. Robert Oviedo (pianoa), Jose Luis Ormazabal (perkusiokoak eta zuzendaritza) eta Urko Sangronizek (biolina eta zuzendaritza) lagunduta.

dica®

URRATEGI INTERIORISMO

eibar

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27
Telf: 943 857 244

S
u
k
a
l
d
e
a
k

d
i
s
e
i
n
u
a





CESAR SARACHU
(aktorea)

“Umore eta imajinazio asko duen lana denez, erraza da konektatzea”

Betaurrekoak apurtuta dituenek, graduatuta dituen igeriketako-betaurrekoak janzen ditu Cesar Sarachu aktoreak ‘Intensamente azules’ antzezlanean. Betaurreko urdinekin bizitza beste modu batean ikusten hasten da eta publikoari barrea eragingo dioten momentuak eskainiko ditu eszenatoki gainean. Antzezlana hilaren 11an, barixakuan, egongo da ikusgai Coliseoan 20:30ean.

- Nola ikusten da bizitza igeriketa-betaurrekoekin?

Modu ezberdinean. Igeriketa-betaurrekoek begirada ezberdin bat eskaintzen dute, gauzak lehenengo aldian bezala berriz begiratzeko gaitasuna: alde aurretik pentsatutako idearik gabe, jolasteko eta gauzak deskubritzeko gogoarekin eta imajinazioa lanean jarriz.

- Beraz, modu xumean bada ere, Superbotereak dituzte?

Bai. Betaurrekoen eta betaurrekoak janzen dituen pertsonaren arteko kontua da. Harrizko gaitasuna berreskuratzeko boterea dute. Esaerak dio begiratzen den kristalaren kolorearen arabera direla gauzak eta kasu honetan kristala (edo plastikoa, igeriketako-betaurrekoak direlako) biziki urdina da, graduatua, eta pertsonaia bizi duena ikusita mundua beste modu batean ikusten da. Momentu atseginak bizi ditu, baina beste batzuk gatazkatsuagoak dira, emazteak eta seme-alabak ez daudelako oso gustora gizon horren bertsio berriarekin. Modu asko dago kontatzen dugun istorioa ulertzeko, zertzelada asko dituelako. Beno, ez dut antzezlana guztia kontatuko, jendea ikustera joan dadila (barreak).

- Publikoak barre egingo duela argi dagoela ematen du.

Umore asko dago Juan Mayorgaren testuan. Askok jolasten dugu. 15 pertsonaia dituen istorioa da, ni naiz aktore bakarra eta izaera surrealista du. Beraz, imajinazio eta fantasia asko behar da, publikoak jolasa jarraituko duen esperantzarekin. Zorionez erantzun hori ikusi dugu orain arte, publikoak atse-

ginez ikusten duela. Umore eta imajinazio asko dituen antzezlana denez, erraza da berarekin konektatzea. Ez da lerro logikoa jarraitzen duen lana, ez da ohiko antzezlana bat, ezberdina da.

- Esan bezala antzezlana 15 pertsonaia ditu eta zu zara aktore bakarra. Nolako erronka izan da zuretzat?

Berria izan da niretzat. Askok jolastu behar duzu hainbeste pertsonaia egiteko. Gauza errazekin markatzen dut pertsonaia bakoitza: zertzelada txikiekin, keinu fisikoekin, ahotsaren tonuarekin... Ezin da gehiegi sakondu pertsonaia bakoitzean, bestela ezinezkoa izango zelako. Nekeza da ordu eta laurden eszenatoki gainean egotea, denbora guztian berba egiten eta hainbeste pertsonaia antzezten. Oso kontzentrazio maila zorrota eskatzen du, baina oso polita da, erronka bat.

- Juan Mayorgarekin berriz elkartzeko zara antzezlana honetan. Zer moduz berarekin?

2015ean Reikiavik lana egin genuen eta pozik ibili ginen. Antzerkigintzako gizon handi bat da Juan. Estatuko dramagintzako izen handienetakoa da. Zuzendari bezala ez du hainbeste esperientziarik, baina antzerkia oso ondo ezagutzen du eta antzerkia talde-lanean egiten dela uste du, nik bezala.

- Telebistan, zinean eta antzerkian ikusi zaitugu. Non sentitzen zara erosoago?

Proiektua polita bada, edozein tokitan zaude ondo. Bitartekoak baino, proiektuak egiten du gustora egotea edo ez.

Zuzeneko musikak bete zituen kaleak asteburuan

Aurreko asteburuan zuzeneko musikak bete zituen herriko kale eta tabernak, Eibarko Musikari Gazteen Elkartearen (EMGE) eskutik egin zen Karrikan ekimenari eta Ez Dok Rockek antolatutako Toribio Rock jaialdiari esker. Barixakutik domekara bitartean, besteak beste,



Kvalvika

Kvalvika, Mise en Abyme, DJ Karba, Big Ion, Ni Neu, Toc, Sua, Lukiek eta Liher taldeek eman zuten kontzertua eta, horri esker, giro ederra egon zen egunero.





Txopitea aita-alabaren lanak Portaleko erakusketa aretoan

Urriaren 20ra arte dago 'Re_encuentro', Daniel Txopitea eta Ainize Txopitearen lanak biltzen dituen erakusketa Portalean ikusteko aukera. Aitaren heriotzaren 20. urteurrena bete dela eta, Ainizek maitasun handiz prestatutako erakusketa da eta, Danielen maisulanekin batera, Ainizek aitaren eraginez sortutako lanak ikus daitezke, ehun bat artelan guztira. Urtean zehar aitaren inguruko hiru erakusketetan (Donostian, Durangon eta Zarautzen) komisariora izan da Ainize, baina berak dioenez, "Eibarkoa erakusketa kuttun eta garrantzitsuena da, eta espazio aldetik oso erronka handia izan da antolatzeko orduan". Martitzenetik domekara bitartean ikus daiteke, 18:30etik 20:30era.



Zapatuetako tailerretarako aurre-matrikula astelehenetik aurrera

Urriaren 7an zabalduko dute Zapatuetako Tailerretan parte hartu nahi dutenentzat aurre-matrikulazioa. 5 eta 11 urte bitarteko umeentzat udazkenerako prestatu dituzten tailerrak "DAS bustinarekin eskulanak", "Eskulanak mache paperarekin", "Makilekin irudiak", "Sukaldaritz munduko zapoak" eta "Papiroflexia/globoflexia" dira. Aurrematrikula on line egin behar da, www.astixa.eus helbidean eta tailer bakoitzari buruzko informazio guztia ere bertan kontsultatu daiteke.



Indianokua gaztelekuak "Arimen gaua" izeneko jarduera antolatu du DBH-ko ikasleentzat. Antolatzaileek azaldu dutenez, Arratera igo eta jeitsi autobusez egingo dute eta gaua, berriz, Arrateko kolonian igaroko dute. Ekimenean parte hartu nahi izanez gero urriaren 8tik 20ra bitartean eman beharko da izena, Indianokua gaztelekuan bertan. Jarduerak 18 euro balio du.



Urriko argazki erakusketak

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik, urriaren honako erakusketak egongo dira ikusteko moduan: Enrique Lorenzoren argazki erakusketa, Ambigu tabernan; Pedro Arriolaren "Napoles" izenburukoa, Portaleko jatetxean; eta Deportiboko Pilota Taldearen argazkiak, berriz, Klub Deportiboan.

Pagatxaren zine-foruma

Pagatxa emakumeen elkarteak antolatuta, gaur 19:00etan "El orden divino de las cosas", Petra Biondina Volperen pelikularen inguruko zine-forum saioa egingo da Portalean, areto nagusian, Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuta. Jarduera doakoa eta irekia izango da. Eta urriaren 14an (astelehena), 18:30ean Portalean, Emakumeen Historiak zikloaren barruan Patricia Perex Cotok gidatuko duen saioan, Clara Campoamor idazle eta politikariaren bizitza eta obra aztertuko dute. Honetan ere sarrera doan izango da.



Proiektzioa bertan behera

Juan San Martin Udal Liburutegiak adituzera eman duenez, datorren aste eguaztenerako antolatuta zegoen "Los hilos del tablero" dokumentalaren emanaldia bertan behera geratu da. Azaldutakoaren arabera, "Gerrarik Ez Eibar kolektiboak proposatu zigun dokumental honen emanaldia egitea, baina atzo bertan behera lagatzeko eskatu digute".

Amagandik edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa antolatu dute

Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) Amagandik edoskitzeari buruzko IV. Argazki Lehiaketa antolatu du, aurreko hiru deialdietan gurasoen aldetik izan duen harrera onarekin animatuta. Bete beharreko baldintzei jarraituta, lehiaketara aurkezten diren argazkiak originalak eta berriak izango dira eta parte-hartzaileek hiruna argazki (koloretan edo zuri-beltzean) aurkezteko aukera izango dute. Horrez gain, parte-hartzaile bakoitzak bere argaz-

kiei inskripzio orria eta irudia biltzeko eta zabaltzeko baimena erantsi beharko die.

Parte hartu nahi duenak azaroaren 16ra arte aurkez ditzake lehiaketarako lanak, honako helbidera bidalita: BP-SO.OSIDEBABARRENA@osa-kidetza.eus. Argibide gehiagorako interneten, www.osa-kidetza.euskadi.eus/debabarreneko-esi helbidean begiratu daiteke edo, bestela, Facebook-en Debabarreneko ESI-k duen orrian. Irabazten duen



argazkiari errekonozimendua emango zaio abenduaren 20an Mendaroko Ospitaleko

ekitaldi-aretoan, eta irabazleari horren berri emango zaio aurretik.

Bertso-paper lehiaketako epea astelehenean zabalduko da

Urriaren 7tik azaroaren 4ra arteko epea izango da XXV. San Andres Bertso Paper lehiaketako lanak entregatzeko. Urtero egiten den moduan maila bi izango ditu lehiaketak: bata 16 urtetik beherako Eibarko ikasleentzat, eta bestea 16 urtetik gorakoentzat (Euskal Herri osorako). Gaia eta doina libreak izango dira. Gaztetxoek bertso bat edo bi kopia aurkeztu beharko dituzte, eta nagusiek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Lanen 3 kopia bidaliko di-



ra gaitzizenarekin eta gutunazal itxi batean egilea identifikatzeko datuak, ...eta kitto! Euskara Elkartera. Urkizu 11 solairuartera. 20600 Eibar.

Sariei dagokienez, umeen mailan, lehenak, liburu eta txapela lortuko ditu eta bigarrenak liburu eta plaka. Nagusietan lehenak 300 euro eta txapela eta bigarrenak 250 euro eta plaka eramango ditu etxera. Sarituek San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak, azaroaren 24an, domekan.

Jendea gustora egon zen barixakuko bertso saioan

Euriaren eraginez, azkenean Portaleko areto nagusian egin behar izan zuten Hankamotxak bertso eskolakoek antolatutako saioa barixaku gauean. Hala ere, bertaratu zen jendeak asko disfrutatu zuen Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Manu Goiogana eta Jokin Bergararen bertsoekin.

Helduen bertso-eskola

Bestalde, ikasturte honetan ere bertsoan hasi nahi duten helduek bertso-eskolara joateko aukera izango dute, hasiberrientzako taldea osatu dute eta. Klaseak eguaztenetan izango dira, 19:30etik 20:30era, Portalean eta izena emateko zein informazio gehiago eskatzeko hankamotxak@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



Juan Antonio Palaciosen "Harria" erakusketa zabaldu dute Bilbon



Eguaztenean "Harria" liburuaren aurkezpena egin zuten egi-leek, Juan Antonio Palacios argazkilariak eta Juan Manuel Uribe poetak Donostian, San Telmo Museoa. Ekitaldian, gainera, Juan Antonio Palaciosen "Harria" ikus-entzunezkoa eman zuten. Eta atzo, berriz, liburu osatzeko Palaciosen egindako argazkien erakusketa zabaldu zuten Bilbon, Bilboargazki 2019 egitasmoaren baitan. Urriaren 9ra arte egongo da "Harria" erakusketa ikusteko aukera, EHU-ren Bizkaia Aretoko Axular aretoan (Abandoibarra etorbidea, 3, 1. solairuan), asteleheneetik barixakura bitartean, 08:00etatik 20:00etara (asteburu eta jaiegunetan itxita).



Antzerki musikala gaur gauean ERMUAN

Gaur gauean, 22:15ean "The Opera Locos" antzerki musikala eskainiko du Yllana taldeak Ermuko Antzokian. Bost abeslari liriko dira "The Opera Locos" lanaren protagonistak, eta arrakasta handiko gaiak beste musika-estilo batzuekin originaltasun handiz fusionatzen dituzte ikuskizun komiko-operistiko honetan. Eszenaratze berezi, estetika zaindu eta Yllana konpainiaren komedia-kontzeptuaren bitartez, The Opera Locos-ek esperientzia berria eta ezberdina sortzen du opera esperimendatzeko orduan. Lanak 2019an musika-ikuskizun onenari Max Saria eskuratu du. Sarrerak 15 euro balio du.



Errosarioko ezpata-dantza ELGOIBARREN

Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideek Errosarioko Amaren ezpata-dantza egingo dute domekan, urriaren 6an, ohitura berreskuratu zutenetik hamaikagarrenegoz. San Bartolome elizan egingo duten mezan hasiko da ezpata dantza, 12:00etan. Amaitutakoan, eliz ataritik San Bartolome kalera abiatuko dira, Kultur Etxe parean geldialdia eginez. Ondoren Errosario kalean sartu eta Ama Birjinaren irudiaren azpian geldialdia egingo dute ezpata dantza dantzatzeko. Kalegoen Plazan egingo dute azken dantza.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Alonso Hernandez de la Cruz.** 84 urte. 2019-IX-27.
- **Amado Mendiguren Astarloa.** 77 urte. 2019-IX-29.
- **Ricardo Diez Varela.** 76 urte. 2019-IX-29.
- **Jesus Garagarza Gurrutxaga.** 73 urte. 2019-IX-30.
- **Isaac Cabañes Lope.** 92 urte. 2019-X-1.
- **Rosa Airas Cid.** 89 urte. 2019-X-2.

jaiotakoak

- **Aner Garcia Aldazabal.** 2019-IX-20.
- **Paula Ibarra Dopazo.** 2019-IX-24.
- **Martina Ibarra Dopazo.** 2019-IX-24.
- **Gina Marlene Martinez Ponce.** 2019-IX-24.
- **Aiur Elorza Andonegi.** 2019-IX-25.
- **Izaro De la Fuente Segundo.** 2019-IX-27.

farmaziak

- Barixakua 4**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 5**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Domeka 6**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Astelehena 7**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 8**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 9**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguena 10**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Barixakua 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

8	6	7	9	2	1	3	4	5
5	2	3	4	8	7	6	9	1
4	9	1	5	6	3	2	7	8
3	5	8	6	4	2	9	1	7
6	4	9	1	7	5	8	2	3
1	7	2	3	9	8	4	5	6
2	1	5	8	3	4	7	6	9
9	8	4	7	1	6	5	3	2
7	3	6	2	5	9	1	8	4

3						4	2	
	6			1				3
				3	5			9
		5	6					7
	1						5	
9					8	1		
6				8	9			
1				2			6	
	3	8						2

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 4

ZINE-FORUMA

19:00. "El orden divino de las cosas" (Petra Biondina Volpe). Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Jarduera doakoa eta irekia. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 5

SAGARDO EGUNA

12:00/14:30 eta 19:00. Sagardo Eguna, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Untzagan.

AGINAGAKO JAIK

17:00. Briska txapelketa.
18:00. Umeendako jolasak eta txokolate jana.
21:00. Afaría (Ixua jatetxean).
23:00. Erromeria, Puro Relajo taldearekin. Goizaldera, txokolate jana. Aginagan.

IPUIN-KONTAKETA

18:00. "Ortzadar arraina", euskeraz eta musika-tresnekin lagunduta. 2-6 urteko haurrentzat, gurasoekin (izen-ematea liburu sailean, 3. solairuan). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KONTZERTUA

19:30. Durangoko Doinu Zahar abesbatza. San Andres elizan.

Domeka 6

BIZIKLETA EGUNA

09:30. Mountain bike eta zikloturista martxen irteera Untzagatik (elkartzeko gunea: 12:00etan Agme-Apalategin).
10:00. Bizikleta elektrikoek erakustaldia eta rodillo inteligentea. CDR bizikletak.
11:00. Ibilbidea, Eibarko bidegorria ezagutzuz. Irteera Untzagatik, Mekola kaletik zehar Amañaraino eta handik berriz Untzagara.
11:30. 8-10 urte bitartekoentzat bi buelta zirkuitoari..
11:45. 11 eta 12 urtekoentzat hiru buelta zirkuitoari.
12:00. Gaztetxoentzako ibilbidea Untzagan eta zikloturisten helmuga. Untzagan.



AGINAGAKO JAIK

11:00. Meza nagusia eta hamarretakoa.
12:30. Gorixoren abereak.
14:00. Oparien zozketa. Aginagan.

Astelehena 7

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 8

IKASTEN

16:00. Puntu tailerra.
17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

AURKEZPENA

19:00. Eibarko Udal Euskaltegiaren ikasturte hasierako aurkezpen ekitaldia. Portalean (areto nagusian).



Eguaztena 9

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.


Eguena 10

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatuta etxean.
19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.



Erakusketak

Urriaren 6ra arte:


– **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN LANAK** (Topaleku)

Urriaren 20ra arte:

– **"RE_ENCUENTRO", DANIEL TXOPITEA & AINIZE TXOPITEA** (Portalea)

Urriaren 31ra arte:

- **ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK** (El Ambigú taberna)
- **PEDRO ARRIOLAREN "NAPOLIS" ARGAZKIAK** (Portalea jatetxea)
- **DEPORTIBOKO PILOTA TALDEAREN ARGAZKIAK** (Klub Deportiboa)



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MARKO Morquecho Hernández, domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa, txapeldun!, danon partez.




Zorionak, IZEI Aranberri Zubizarreta. Martitzenian 4 urte. Zure alaittasun horrek eteko danok pozten gaittu, txapelduna!




Zorionak, XUBAN, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna! Laztan haundi bat danon partez.



Zorionak, ANER, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, Danel zure anaixa eta Noa eta Luka lehengusuen partez.



Zorionak, JULEN, martitzenian 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Millaka musu gure LUKE polittari, bere bosgarren urtebetetzian!!!



Zorionak, LUCIA, bixar 8 urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat Eibarkuen partez.



Zorionak, ANE, astelehenian 11urte beteko dozuzelako. Musu asko etxeko danon partez.



Zorionak, BERNAT, zure 2. urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, Oinatz, Lur eta Naiken partez.



Zorionak, JULE!!!, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, JONEren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

5ean: 19:45, 22:30

6an: 20:00

7an: 20:30

"Mientras dure la guerra"

Zuzendaria: Alej. Amenabar



(2 ARETOAN)

5ean: 17:00, 19:45, 22:30

6an: 17:00, 20:00

7an: 20:30

"Agur Etxebeste!"

Zuzendaria: Telmo Esnal



(ANTZOKIAN)

5ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

6an: 17:00^(1 aretoa), 20:00

7an: 20:30

"Joker"

Zuzendaria: Todd Philips



(ANTZOKIAN)

5ean: 17:00

6an: 17:00

"Dora y la ciudad perdida"

Zuzendaria: James Bobin



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-521840.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 681-013032. Carla.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Corsa 1400, 90 cv, Eco (GLP) salgai. 2017koa. 7.000 kilometrora heldu gabe. 9.990 euro. Tel. 658-714437.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai Eibarren. Tel. 686-280395.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-893312.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Orduka. Tel. 658-385055.
- Emakumezkoa eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Tel. 665-974354.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-115184.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta mantenimendu lanetarako. Tel. 667-272620.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 665-733162.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 641-426528.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 602-850826.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 612-201719.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-605632.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-310989.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 2 urteko esperientzia. Tituluarekin. Tel. 631-627419.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Esperientzia. Tituluarekin. Tel. 602-490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-735551.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza eta erreferentziak. Tel. 622-809011.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Orduka. Tel. 643-707623.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-296098.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-556910.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-398596.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-532426.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. HHko tituluarekin. Tel. 644-355050.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordutegi malgua. Esperientzia. Tel. 603-651876.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Geriatria tituludun neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 638-908730.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-959575.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-890435.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauz ere. Tel. 671-763558.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-197217.

4.2. Langile bila

- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegi zentro baterako. Langiro bikaina. Tel. 678-674250.
- Emakume euskalduna behar da adineko andra bati etxeko lanetan laguntzeko: etxeko garbiketarako eta janari prestatzeko. Goizean 3 ordu astelehenetik ostiralera. Tel. 687-472084. Ane.
- Dekoraztailea behar da altzari-denda batean. Esperientziarekin. Tel. 649-781942.
- Kamarera/o behar da asteburuetan Eibarren lan egiteko. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeniaritza ikasketak hasi dituen ikasleak irakaslea behar du. Tel. 636-523804.

5.2. Eskaintzak

- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erresuma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako ikas-erremintekin. Tel. 617-265575. Avelina.
- LHko klase partikularrik ematen ditut. Magisteritzako formakuntzarekin. Tel. 605-746908.
- LHn graduatua eta aisialdirako begirale tituludunak klase partikularrik ematen ditu. Tel. 665-606832.
- Euskera irakaslea behar da DBH 2. mailako ume batenzat eta 8 urteko beste batenzat. Astean bitan. Tel. 653-735874.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Baita diskoteketako baso-azpikoak eta pospolo-kaxak ere. Tel. 688-624326.
- Aulki elektriko tolesgarria salgai, litiozko bateriarekin. Garantiarekin. Ia erabili gabe. Tel. 616-234643.
- DBH 3ko Eki proiektuko iazko liburuak erosiko nituzke. Tel. 679-323452. Cristina.

6.2. Eman

- Sehaska oparitzen dut, koltxoi eta babesleekin. Tel. 652-716135.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Azukrea neurtzeko makinatxoa galdu da estutxe beltz batean, Urkizu inguruan. Tel. 626-409235.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berbera arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA



838200124
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA



Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centrosamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer


PSIKOTERAPIA ZENTRUA



HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA



Errebal, 15 - 1. esk.EIBAR
Zuberoa, 4.....ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR



FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. esk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder

clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

www.bistaeder.es